



## **DOKUMENTU DESKRIBATZAILEA JARDUERA OROKOR ETA INTEGRATU BAT EGITEKO, DONOSTIAKO “LM.06-TXOMIN ENEA” EREMUAN DISTRICT HEATING SISTEMA BAT EZARRIZ, ABIAN JARRIZ, USTIATUZ ETA MANTENDUZ**

### **1. Aurrekariak**

Donostiako Udalak ingurumenaren eta ekonomia-garapen iraunkorraren alde egindako apustua bistakoa da dagoeneko urte askotan garatu dituen hainbat ekimen eta proiektutan.

Ingurumenaren esparruan, nabarmendu behar da Covenant of Majors (Alkateen Ituna) 2008. urtean. Horren bidez, besteak beste 20-20-20 helburuak, Alkateen Ituna (Klima Aldaketara Egokitzuz) edo Europako Energy Cities Sarera sartzea lortzeko konpromisoa hartu du hiriak.

Ekonomia-garapen iraunkorraren atalean, Udalak FOMENTO DE SAN SEBASTIÁN, S.A. (SUSTAPENA aurrerantzean) sozietate publikoaren bidez lan egin du, energiaren sortze deszentralizatua lortzeko (esaterako, eraikin publikoetan 28 instalazio fotovoltaiko ezarriz, guztira 1 MWp inguruko potentzia osoa izanda, edo 0 inguruko igorpenak dituzten eraikinak eraikiz), eta energia berriztagarriekin eta eraginkortasun energetikoarekin lotutako sektore ekonomikoaren aldeko apustua egiteko (100 erakundek baino gehiagok parte hartzen duten tokiko kluster batekin).

Horrez gain, udalak Smart Cities direlakoan esparruan garatutako azken jarduerak nabarmendu behar dira, hala nola Smart Kalea edo 2016-2020 Smart Jarduera Plana (Europa Steep proiektuaren barruan egindakoa, non Florentzia eta Bristol hiriez eta departamentu eta udal erakunde batzuez gain, zenbait erakunde publiko eta pribatutako 185 pertsonak parte hartu duten).

Bereziki garrantzitsua ere bada duela gutxi onartu duten Replicate Proiektua. Hor, Donostiaz gain, Bristol eta Florentzia hiriek ere parte hartu dute. Guztira, 29 milioi euroko aurrekontua du (horietatik, 11 milioi Udalak eta haren erakundeek jarri dituzte; gainerakoa, tokiko bazkideak). Urumeako ibarrean eta Txomin hiri-garapen berriaren esparruan bereziki jardungo dute.

Hiri-garapen berri horretan (AIU “LM.06 – TXOMIN ENEA”) kokatuko da Donostiako Udalak sustatutako District Heating Proiektua (District Heating Proiektua aurrerantzean). Beroa ekoizten eta banatzen duen sistema zentralizatua da eta Udalari berari emango dio zerbitzu.

District Heating sistemak ur beroko zentral batek ekoiztuko du, termikoko isolatuta dauden hodi-sare baten bidez. Esparru osoa urbanizatuz gauzatuko dira hodiak, eta eraikin guztiei hornituko die. Horrela, erabiltzaile bakoitzak bere instalazioak, berokuntza zerbitzua eta etxeko ur beroa (EUB aurrerantzean) izango ditu modu independentean.



Proiektu hori garatu aurretik zenbait azterlan egin dira azken urteetan bere bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa baloratzeko. Horietan oinarrituz, eta aztertuta, Udaltzakoak “Udalaren baliabidea den SUSTAPENAK “District Heating” Energia Sortzeko Zentro bat kudeatzeko eta sortzeko jarduera ekonomikoa zuzenean kudeatzea” onartu zuen 2015eko martxoaren 3an, “7/1985ko Legearen 85.2.d) artikuluan ezarritakoaren arabera”. Horrela, proiektu hori abian jartzea eta geroko kudeaketaz arduratzea eskatu zion SUSTAPENARI. Horrez gain, ez zuen baztertu enpresa pribatu batekin lankidetzaren eredu bat finkatzea, egin beharreko inbertsioan eta geroko ustiapenean parte har zezan.

Zentral termikoa TXOMIN ENEA LO.05 hirigintza-eremuko g.00.4. lursailaren gainean eraikiko den eraikin batean kokatuko da. Lursail horren titularrak Donostiako Udala da eta SUSTAPENARI lagako dio jabari publiko gisa. Jabari publikoaren lagapena SUSTAPENAREN eta kontratuaren esleipendun ateratzen den agente pribatuaren artean sinatu beharreko kontratuaren muga izango da. Eraikina, zentral termikoaren kasuan bezala, esleipendunak eraikiko du eta SUSTAPENARI emango diote Dokumentu Deskribatzaile honetan ezarritako unean.

## 2. Prozeduraren xedea

Testuinguru honetan, prozedura honen xedea kontratista pribatu bat aukeratzea da, jarduera hauek egin ditzan:

- (i) Batetik, **zentral termikoaren eta instalazioen eraikinaren obra zibila eta gainerako inbertsioak egitea** (banaketa-sarea izan ezik), Donostian kokatuta dagoen “LM.06 – TXOMIN ENEA” AIUrako hiri-garapen berrian District Heating sistema ezar dezan.
- (ii) Bestetik, aipatutako District Heating sistema **abian jartzea eta ustiatzea**, hau da, lehen mailako energia erostea, sistema horren bidez energia termikoa (EUB eta berokuntza) ekoiztea, banatzea eta hornitzea eta SUSTAPENAREN EUB eta berokuntzako bezeroekiko harremanak kudeatzea.
- (iii) Bestalde, aipatutako District Heating sistema duen azpiegituraren **mantentzea eta berme osoa** bere gain hartzea.

Hauk dira kontratuaren “Kontratu Publikoen Hiztegi Erkidearen” (KPH) kodeak:

45251140-4: Zentral termikoak eraikitzeko lanak.

09321000-5: Ur beroa.

09323000-9: Urrutiko berokuntza.

Dokumentu Deskribatzaile honen **1. eranskin** gisa “District Heating Txomin Bideragarritasun Tekniko eta Ekonomikoaren azterketa (Donostia)” izeneko dokumentua gehitu da. District Heating Proiektuari buruzko informazioa du, lizitazio honen ondorioetarako garrantzitsua dena. Hala eta guztiz ere, Bideragarritasun Azterketa hori orientatzeko izango da, eta ez da loteslea izango prozeduraren parte hartzen duten lizitatuzaileentzat eta SUSTAPENARENTZAT.



Inguruabarrak ikusita (zailtasunak proiektuaren finantzazioa lortzeko, krisi ekonomiko larriko agertokian; jarduera orokor eta integratua izatea; jarduera aldez aurretik zehazteko eta finkatzeko konplexutasuna, hau da, District Heating sistema “LM.06 – TXOMIN ENEA” AIUrako hiri-garapen berrian ezartzeko, abian jartzeko eta ustiatzeko prozesua, Espainian antzeko esperientzia gutxi dagoelako eta horietatik ez dago Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuarekin pareka daitekeenik; SUSTAPENAK, behin ezarrita, District Heating sistema beraren kontrola eta jarraipena egiten jarraitzeko nahia), ezinbestekoa da zehaztapenak irekita geratzea, interesa duten eragile pribatuek aldera eta gara dezaten.

Hori horrela izanda, aipatutako District Heating sistemak ase beharko dituen beharren izaera eta dimentsioa, eta ezarpen prozesuaren eta haren definizioaren inguruko zehaztapenak, ustiapenak barne hartuko dituen elementu juridiko, tekniko eta ekonomikoak, prozedura hau amaitutakoan sortzen direnak izango dira. Horrela, arestian aipatutako kontratua beteko da.

Zehazki, eta lehia elkarrizketaren emaitzaren arabera behin betiko zehaztuko dela alde batera utzita, kontratu honen xede den jarduera orokor eta integratuaren helburua esleipendunak jarduera hauek egitea da:

## **2.1. Zentral termikoaren eta instalazioen eraikinaren obra zibila eta gainerako inbertsioak egitea, Donostian kokatuta dagoen “LM.06 – TXOMIN ENEA” AIUrako hiri-garapen berrian District Heating sistema ezar dezan.**

- Lehia elkarrizketarako prozedura honetan **esleipenduna geratzen den eragile pribatuak** honako hauek egingo ditu:

- ✓ Zentral termikoa hartuko duen eraikina gauzatzeko proiektua, SUSTAPENAK egindako oinarritzko proiektuaren arabera, eta zentral termikoaren proiektua bera. Bi kasuetan sistemaren behin betiko irtenbide teknikoari jarraituko zaio.

Irtenbidea edo irtenbideak jasotzen dituen dokumentuan zentral termikoa hartuko duten eraikinaren egikaritze-proiektuaren eta SUSTAPENAREN zentral termikoaren proiektuaren beraren balidazioa egiteko baldintzak zehaztuko dira.

- ✓ Energia termikoa ekoiztuko den zentral termikoa hartuko duen eraikinaren obra zibila egitea.

Zentral termikoa hartuko duen eraikina Donostiako Udala titularra den partzela batean eraikiko da. Horren helburu bakarra SUSTAPENARI jabari publiko gisa lagatzea izango da, Dokumentu Deskribatzaile honen 1. atalean adierazitakoarekin bat.

Eraikin horren berezitasuna dela eta, ezinbestekoa da haren ezaugarriak une honetan finkatuta eta zehaztuta ez geratzea, interesa duten eragile pribatuek berek alderatzeko eta garatzeko. Horrela, haren konfigurazioa eta



ezaugarriak lehia elkarrizketarako prozeduraren barruan ezarriko dira. Eraikin horren oinarriko proiektua SUSTAPENAK idatziko du.

- ✓ District Heating sistema ezartzeko eta abian jartzeko beharrezkoak diren inbertsioak (banaketa-sareari dagozkionak izan ezik), eta oro har, zentral termikoa egikaritzea.

Eraginkortasun energetikoa hobetzea sustatuko da, energiaren aurrezpena, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarri eta hondar-energien erabilera sustatzen duten ekipamenduak eta instalazioak erabiliz, hala nola biomasa, eguzki-energia termikoa, eguzki-energia fotovoltaikoa, geotermia, aerotermia, kogenerazioa eta abar.

- Lehia elkarrizketarako prozeduran zehar, eraikina entregatutakoan SUSTAPENAK obra zibiletik eta inbertsioetatik nahiz bere alde egiaztatzen diren inbertsioetatik dirutan zer ehuneko ordainduko duen zehaztuko da, Dokumentu Deskribatzaile honen hurrengo 2.2. atalean ezarritakoaren arabera.
- SUSTAPENAK lehiaketa elkarrizketarako prozedura honen esleipendun ateratzen den eragile pribatuari lagako dio energia termikoa banatzeko sarearen erabilera.

Banaketa-sarea termikoki isolatuta dagoen hodi-sare batez osatuta egongo da, eta lurpetik joango da. Hodi-sare hori “LM.06 – TXOMIN ENEA” Eremuaren Urbanizatzeko Proiektuan barne hartzen da.

Lehia elkarrizketarako prozedura honen esleipendun izaten den eragile pribatuak banaketa-sarea eraikitzeke lanen jarraipena eta ikuskapena egin beharko du, eta haien gorabeheren, errore eta akatsen berri eman beharko dio SUSTAPENARI, hala badagokio, egokitzen jotzen dituen zuzentze-neurriak proposa ditzan.

Hori horrela izanda, lehia elkarrizketarako prozedura honen esleipenduna izaten den eragile pribatuak, behin banaketa-sarea eraikita egonda, ezin izango dio egin inolako erreklamaziorik SUSTAPENARI eraikitze-fasean jakinarazi beharko lukeen edozein gorabeherengatik, aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraiki.

- Esleipenduna izaten den eragile pribatuari dagokio zentral termikoa hartuko duen eraikinaren obra zibila gauzatzeko eta zentral termiko hori gauzatzeko eta abian jartzeko, eta oro har, jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren beste zergak (esaterako EIOZ) ordaintzea eta lizentziak eta baimenak lortzea.
- SUSTAPENARI edo Donostiako Udalarari dagokio zentral termikoa hartuko duen eraikinaren obra berriaren adierazpena egitea. Horrela, lehia elkarrizketarako prozedura honen esleipenduna izaten den eragile pribatuak beharrezko agiriak prestatzeaz gain, kudeaketak ere egin beharko ditu, SUSTAPENAK edo Donostiako Udalak aipatutako obra berriaren adierazpena egin dezaten.



- Esleipenduna izaten den eragile pribatuak, gutxienez, proiektu-zuzendari bat, kudeatzaile energetiko bat eta mantentze-zuzendari bat atxiki beharko ditu kontratura, eta lehia elkarrizketarako prozeduran adierazitako eginkizunak bete beharko dituzte.

## **2.2. District Heating sistema abian jartzea eta ustiatzea, hau da, lehen mailako energia erostea, sistema horren bidez energia termikoa (EUB eta berokuntza) ekoiztea, banatzea eta hornitzea eta SUSTAPENAREN EUB eta berokuntzako bezeroekiko harremanak kudeatzea eta energia kudeatzea.**

Kontratu gauzaten ari direla, esleipenduna izaten den eragile pribatuari egokituko zaio District Heating sistema abian jartzea eta ustiatzea (hau da, lehen mailako energia erostea, energia termikoa ekoiztea, banatzea eta hornitzea (EUB eta berokuntza), aipatutako District Heating sistemaren bidez, eta SUSTAPENAREN EUB eta berokuntzako bezeroekiko harremanak kudeatzea), eta energia kudeatzea.

Jarduera horiek gauzatzeko, SUSTAPENAK eraikinaren, eta hala badagokio, zentral termikoa hartuko duen eraikinaren eremuen, zentral termikoaren beraren eta beharrezkoak diren ekipamendu guztien erabilera lagako dio esleipendunari, kontratuaren eta energia termikoaren banaketa-sarearen helburua betetzeko.

Lehia elkarrizketarako prozeduraren barruan jarduera horien edukia eta gauzatzeko modua zehazten joango direla alde batera utzita, oinarritzat beharko dira elementuak aipatuko ditugu orain:

- **District Heating sistema abian jartzea.**
  - ✓ Esleipenduna izaten den eragile pribatuari dagokio District Heating sistema abian jartzea.
  - ✓ Halaber, esleipenduna izaten den eragile pribatuari dagokio enpresa bat bere kontura kontratatzea, “comissioning” delakoa egin dezan, District Heating sistema SUSTAPENAREN eskakizunen arabera diseinatu, eraiki, ezarri eta abian jarri dela egiaztatzeko.

Enpresa hori SUSTAPENAK zehaztuko du.

Enpresa horrek zer lan egin beharko dituen eta nola gauzatu beharko dituen lehia elkarrizketarako prozeduran zehaztuko da.

- ✓ Delako “comissioning” egiten duen enpresak egiaztatzen duenean District Heating sistema SUSTAPENAREN eskakizunen arabera diseinatu, eraiki, ezarri eta abian jarri dela, jasotzat hartuko ditu eta jasotze horri dagokion Akta egingo du.

Horrekin batera, zentral termikoa hartuko duen eraikinaren egiaztagiria ere jaso beharko du, eta dagokion Akta ere egingo du.



Eraikina edo District Heating sistema jasotzeko moduan ez badaude, horrela geratuko da jasota dagokion Aktan, eta beharrezko jarraibideak emango zaizkio esleipenduna izaten den eragile pribatuari, ikusitako akatsak konpon ditzan. Horretarako epea ere ezarriko du. Epe hori igarotakoan esleipenduna izaten den eragile pribatuak ez baditu zuzendu, luzatu ezin den beste epe bat eman ahalko dio, eta kontratua ebatzitzat hartu. Horrez gain, zehapenak edota kalte-ordainak ere eskatu ahalko ditu, lehia elkarriketarako prozeduran zehar zehazten diren baldintzen arabera.

Jasotzean, SUSTAPENAK jabeak ondasun horien gainean dituen eskubideak eta betebeharrak eskuratuko ditu, eta une horretatik aurrera, esleipenduna izaten den eragile pribatuari egokituko zaio erabilera, Dokumentu Deskribatzaile honetan eta sinatzen duen kontratuan ezarritako baldintzen arabera.

- **District Heating sistemaren ustiapena.**

Honetan datza District Heating sistemaren ustiapena:

✓ **Lehen mailako energia erostea eta energia termikoa ekoiztea.**

Kontratatik eraginkortasun energetiko handiko edo energia berriztagarriko sistemen bidez ekoiztu beharko du, gutxienez lehia elkarriketarako prozeduraren barruan zehazten den ehunekoa. Ezin izango da izan ekoiztutako energia termikoaren % 75 azpikoa.

Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira eraginkortasun energetiko handiko sistematzat:

- % 65etik gorako Errendimendu Elektriko Baliokidea (EEB) duten kogenerazio-sistemak.
- 4ko edo hortik gora Coeficiente of Performance (COP) koefizientea duten aerotermia eta geotermia sistemak.

Xede horretarako, District Heating sistemak lehen mailako energia (gasa, biomasa, elektrizitatea) eta energia neurtzeko elementu guztiak izango ditu zentral termikoan eta sistemaren azken bezeroen etxean/lokalean.

Horrez gain, energia termikoa ekoiztean, errekontza-gasetan dauden partikula esekien igorpena bete beharko da. Beraz, gehienez, 20 mg partikula egon ahalko dira Nm<sup>3</sup>-ko.

Bi betebeharrak horiek (hots, esleipenduna izaten den eragile pribatuak eskaintako energia termikoaren ehunekoa eraginkortasun energetiko handiko sistemen edo energia berriztagarrien bidez sortzea, eta errekontza-



gasetan dauden partikula esekien igorpena gehienez 20 mg/Nm<sup>3</sup> izatea), kontratuaren funtsezko betebeharrak izango dira, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 223.f). artikuluan ezarritako ondorioetarako. Horrenbestez, horiek ez badira betetzen, SUSTAPENAK kontratua indargabetuko du. Hala eta guztiz ere, betebeharrak horiek noizean behin bakarrik ez badira betetzen, dagokion zehapena ezarriko da.

Lehia elkarrizketarako prozeduraren barruan zehaztuko da aipatutako betebeharren ez betetze horrek noiz ekarriko duen kontratuaren indargabetzea, SPKLTBren 223.f) artikulua onorioetarako, edo noiz zehapena ezartzea.

Kontratatik urtero SUSTAPENAK auditoretza bat egiteko adierazten duen enpresa kontratatu beharko du bere kontura, egiaztatu beharko du (i) eraginkortasun energetiko handiko edo energia berriztagarriko sistemen bidez lehia elkarrizketarako prozedurak eskatutako gutxienezko energia ekoiztu duen, eta (ii) errekontza-gasetan dauden partikula esekien igorpena 20 mg/Nm<sup>3</sup> baino handiagoa ez dela izan.

✓ **Energia termikoaren banaketa eta hornidura (EUB eta berokuntza) District Heating sistemaren azken bezeroei.**

District Heating sistemaren azken bezeroei gutxienezko emari eta tenperaturak bermatuko zaie, eta lehia elkarrizketarako prozeduran zehar ezarriko dira.

✓ **District Heating sistemaren azken bezeroekiko harremanen kudeaketa.**

Energia hornitzeko kontratua SUSTAPENAK eta District Heating sistemaren azken bezeroek sinatuko dute. Hala ere, esleipenduna izaten den eragile pribatuak kudeatuko du osorik haren azken bezeroekiko harremana (haien egindako fakturak izan ezik, orain adierazitakoarekin bat). Horrela, SUSTAPENAK District Heating sistemaren azken bezeroekin bere gain hartzen dituen eta lehiaren elkarrizketarako prozeduran zehaztuko diren konpromisoak esleipenduna izaten den eragile pribatuaren betebeharrak izango dira.

Testuinguru horretan, esleipenduna izaten den eragile pribatuari egokituko zaio jarduera hauek egitea, lehia elkarrizketarako prozeduraren ondoren behin betiko zehaztuko diren baldintzen arabera:

- District Heating sistemaren azken bezeroei bezeroaren arretarako telefono-zerbitzua jartzea, eguneko 24 ordutan, urteko egun guztietan.



- SUSTAPENARI District Heating sistemaren azken bezeroei emango dien fakturen zirriborra bat egitea eta bidaltzea.

Horretarako, esleipendunak plataforma informatiko bat erabili eta jarri beharko du SUSTAPENAREN eskura, District Heating sistemaren azken bezeroen kontsumoak eta fakturazioa monitorizatzeko. Plataforma informatiko horren bidez, esleipenduna izaten den eragile pribatuak, besteak beste bezero bakoitzak kontsumitutako energiaren jarraipena egingo du. Plataforman jasotzen den informazioa “cloud” motakoa izango da, eta horren bidez, bezero guztien informazioa aldi berean ikusi ahalko du, informazio-maila desberdinekin. Plataforma horrek, beren faktura ikusteko aukera eman beharko dio azken bezero bakoitzari.

- Ahal duen eta SUSTAPENAK eskatzen dion guztian laguntzea dagozkion kudeaketetan, amaitutako, eska daitezkeen eta ordaindu ez diren zorrak kobratzeko azken bezeroengandik.
- Oro har, District Heating sistemaren azken bezeroekiko harremanak kudeatzea, eta haien eskaerei erantzutea, SUSTAPENARI sor daitezkeen gorabeheren berri emanez, lehia elkarriketarako prozeduran ezartzen diren baldintzen arabera.

✓ **Kudeaketa energetikoa.**

Prozeduraren esleipenduna den eragile pribatuari egokituko zaio District Heating sistema ongi ibiltzeko energia kudeatzea, sistema osoaren erregaien eta elektrizitatearen hornidura energetikoaren kudeaketa, kalitate-kontrola, kopurua eta erabilera barne; eta ingurumenaren aprobetxamendu bermeak eta eskaerak.

**2.3. District Heating sistemak izango duen azpiegituraren mantentzea eta berme osoa.**

- Esleipenduna izaten den eragile pribatuari dagokio District Heating sistema egongo den azpiegitura osoaren mantentzea –zentral termikoa hartuko duen eraikina, haren mantentze eta konponketa arruntei dagokienez; energia termikoaren banaketa-sarea; instalazioak; ekipamenduak; eraikinen truke azpiestazioak; irakurtzeko eta zenbartzeko sistemak; plataforma informatikoa eta abar barne- (AZPIEGITURA aurrerantzean), kontserbazio-egoera onena egon dadin. Horrela, kontratuaren gauzatze egokia, District Heating sistemaren etekina hasierako balioetan mantentzea, eta azken bezeroei energia termikoaren hornidura egokia egitea bermatuko dira.

AZPIEGITURAREN mantentze eta kontserbazio horrek ezinbestekoak diren konponketa guztiak barne hartuko ditu, hondatutako edo matxuratuta dauden





elementu guztiak ordezkatur (baita jatorrizkoen etekin berak edo hobeak dituzten ekipamendu osoak ere), kontratuan ezarritako baldintza egokietan mantentzeko.

Adierazi den moduan, esleipendunak AZPIEGITURA mantentzeko baldintzak lehia elkarrizketarako prozeduran zehaztuko dira.

- Halaber, kontratuaren esleipenduna izaten den eragile pribatuari dagokio AZPIEGITURAN SUSTAPENAK eskatutako handitzeak eta hobekuntzak egitea. Hala badagokio, kontratuaren aldaketa gisa bideratu eta gauzatuko dira. Bestalde, alderdiek zehaztuko dituzte haien baldintzak.
- Bestalde, kontratuaren esleipenduna izaten den eragile pribatuari egokitu zaio AZPIEGITURAN berak egokitzen jotzen dituen handitzeak edo hobekuntzak egitea. Handitze edo hobekuntza horiek egiteko, SUSTAPENAREN berariazko eta idatzizko baimena izan beharko du alde aurretik, eta hala badagokio, kontratuaren aldaketak gisa bideratu eta gauzatuko dira. Haien baldintzak alderdiek zehaztuko dituzte.

Kontratua indarrean dagoen bitartean AZPIEGITURAREN elementuak aldatzen badira edota kontrol-sistema berriak hartzen badira, esleipenduna haien mantentzeaz arduratuko da, Dokumentu Deskribatzaile honetan adierazitakoaren arabera.

- Edozein arrazoiengatik kontratua iraungitzen bada, partzela, AZPIEGITURA eta kontratuan zehar egindako obrak eta inbertsioak itzuliko zaizkio SUSTAPENARI, kargarik eta zorrik gabe, Dokumentu honen 24. atalean adierazitakoaren arabera.

Itzultzerako unean, partzela, AZPIEGITURA eta kontratuan zehar gauzatutako obrak eta inbertsioak kontserbazio onean egongo dira, eta eraikuntzaren antolakuntzaren inguruan indarrean diren funtzionaltasun, segurtasun eta bizigarritasun baldintzak bete beharko dituzte, SUSTAPENAK edo erakunde horrek hori ustiatzeko kontrataturiko beste agente batek District Heating sistemaren ustiapenak behar bezalako jarraipena izatea berma dezaten.

- Mantentze eta kontserbazio lanetan hartutako irtenbideekin eremuko gainerako instalazioen estetika eta uniformetasuna mantendu beharko dira, baita horiek hartzen dituen eraikinerako egokituak pisuak eta neurriak ere.
- Oro har, matxurak eta gorabeherak konpondu beharko dira zerbitzua ematea bermatzeko moduan eta ahal dela District Heating sistemaren azken erabiltzaileei kalte gutxi eginaz.

Konpontzeko baldintza zehatzak eta dagozkien epeak lehia-elkarrizketaren prozeduran zehaztu beharko dira.

- "District Heating sistemaren azken bezeroekiko harremanen kudeaketa" izeneko 2.2. atalean adierazitakoaren arabera, esleipenduna ateratzen den agente pribatuak



horien eskura jarri beharko du bezeroak artatzeko eguneko 24 orduko telefono-zerbitzua, urteko egun guztietan. Bezeroak artatzeko telefono-zerbitzu horren bitartez, esleipendunak matxuren eta gorabeheren abisuak ez ezik, District Heating sistemaren inguruan azken bezeroek egindako erreklamazioak ere jasoko ditu.

Esleipenduna aterako den agente pribatuak gorabehera eta/edo matxura konpontzeko lanak hasi beharko ditu gehienez 5 orduko epean, dagokion gorabehera eta/edo matxuraren abisua bezeroak artatzeko telefono-zerbitzuaren bidez jasotzen duenetik kontatzen hasita eta lehia-elkarrizketan ezarritako baldintzetan.

Bezeroak artatzeko telefono-zerbitzuak ondorengoak izan beharko ditu: (i) deiak grabatzeko grabagailua, dagokion gorabeherari eta/edo matxurari buruzko txostena grabatu ahal izateko; (ii) komunikazio-sistema bat zaintzako taldeak jakin dezan dagokion gorabeheraren eta/edo matxuraren berri. SUSTAPENAK grabazioak aztertu ahal izango ditu egokitzen jotzen duenean; hortaz, grabazio horiek jaso egin beharko dira SUSTAPENAK suntsitzeko baimena eman bitarte.

Bezeroak artatzeko telefono-zerbitzuaren bidez jasotako deiak erabilia, esleipendun ateratzen den agente pribatuak erregistro elektronikoa sortuko du, eta, bertan, District Heating sistemaren azken bezeroen dei bakoitzaren eguna eta ordua agertuko dira, jasotako abisuarekin eta matxura konpontzeko egindako ekintzekin batera. Erregistroa etengabe eguneratuko da, eta SUSTAPENAREN esku egongo da.

- AZPIEGITURAREN mantentze-lanak egiteko eta bertako gorabeherak eta matxurak konpontzeko, esleipendun ateratzen den agente pribatuak "zaintza-zerbitzua" eskaini beharko du eguneko 24 ordutan eta urteko egun guztietan. Aipatu zaintza-zerbitzua emateko, lehen mailako ofizial mekanikoak eta lehen mailako ofizial elektrikoak gutxienez osatutako taldea egongo da; halaber, edozein gorabehera eta/edo matxura berehala konpontzeko edota AZPIEGITURA ez hondatzeko beharrezko neurriak hartzeko beharrezko baliabide teknikoak eta ordezkoak beharko dira.
- Esleipendun ateratzen den agente pribatuak lur azpiko matxurak detektatzeko detektagailua izan beharko du, matxura non dagoen berehala zehazteko eta hiru metrotik gorako luzerako hoditeria aurre isolatuaren sarean aurkitzen ibili beharrik ez izateko.
- Konpontze-lanei dagokienean, esleipendun ateratzen den agente pribatuak egin beharko ditu lubakiak edo zuloak irekitzeko lan guztiak, zoladura berriz jartzea barne, District Heating sistemaren matxurak konpontze aldera.
- Esleipendun ateratzen den agente pribatuak seinaleak jarri beharko ditu bide publikoan, dagokion araudiaren eta Udalak, hala behar izanez gero, emandako



jarraibideen arabera. Agente pribatuak izango du betebeharrak ez betetzearen ondorioz sor daitezkeen kalte-ordainen erantzukizuna.

- Halaber, esleipendun ateratzen den agente pribatuari dagokio "comissioning" izeneko egiteko enpresa bere kontura kontratatzea, kontratua amaitu baino 6 hilabete lehenago, District Heating sistemaren kontserbazioa eta funtzionamendua egoera ezin hobean aurkitzen direla egiaztatzearen.

Aipatu enpresa SUSTAPENAK zehaztuko du.

Enpresa horrek egin beharreko lanak eta egiteko modua lehia-elkarriketaren prozeduran zehaztuko dira.

### **3. Kontratu-formula eta esleipen-prozedura**

Kontratuak emate kontratu baten antzeko izaera eta ezaugarriak ditu; kontratu-mota hori Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko otsailaren 26an emandako 2014/23/EB Zuzentarauak arautzen du, eta zerbitzuak emateko kontratuen esleipenari buruzkoa da (aurrerantzean, 2014/23/EB Zuzentaria). Kontratua egitearekin, esleipendun ateratzen den enpresak arrisku operazionala hartuko du, zehazki, eskari-arriskua, 2014/23/EB Zuzentariauko 5. artikuluan adierazitako baldintzetan.

Era horretan, Agiri Deskribatzaile honetan berriaz aurreikusitakoaren interpretazio-izaera emango zaie 2014/23/EB Zuzentarian eta Sektore Publikoaren kontratazioarako dagoen gainerako araudian jasotako emate kontratuaren aurreikuspenei.

Horrez gain, bildutako egoera konplexuak ikusita, beharrezkoa da definizioak unean bertan irekita egotea, agente pribatu interesatuek egiaztatu eta garatu ditzaten, kontratuaren inguruan SUSTAPENAK dituen premiak bete ditzaketan irtenbideak prozeduran zehar definitzearen.

Hori guztia dela-eta, esleipen-prozedura lehia-elkarriketa izango da, eta agiri honetan Dokumentu Deskribatzailea osatuko da, premiak eta baldintzak definitze aldera.

### **4. Erregimen juridikoa eta jurisdikzioa**

Kontratu-izaera izango dute honako agiri hauek:

- Dokumentu Deskribatzaile honek eta Eranskinek.
- Esleipendunaren behin betiko eskaintzak.
- Gauzatzen den kontratuak, prozeduraren ondoren behin betiko eginak.



Kontratua, prestakuntzari eta esleipenari dagokienez, honako hauek eraenduko dute: Dokumentu Deskribatzaile honek eta atal honetako lehen paragrafoan aipatzen diren dokumentuek, eta, horietan aurreikusten ez diren kasuetan, sektore publikoko erakundeek, Herri Administrazio ez diren botere esleitzzailea dutenek, egindako erregulazio harmonizatuko kontratueterako SPKLTBn horretarako ezarritako arauak.

Ondorioei, betetzeari eta azkentzeari dagokienean, kontratua honako hauek eraenduko dute: Dokumentu Deskribatzaile honek eta atal honetako lehen paragrafoan aipatzen diren agiriek, eta, horietan aurreikusten ez diren kasuetan, zuzenbide pribatuko arauak, kontratuaren aldaketaren inguruko kontuetan izan ezik, kasu horretan SPKLTBko I. Liburuko V. Tituluan ezarritakoa aplikatuko baita.

Horrez gain, SPKLTB, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuaren inguruko 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, partzialki garatzen duena, eta, arau horietan aurreikusitakoaren aurka egiten ez duenean, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena. Horiek aplikatuko dira Dokumentu Deskribatzaile honetan testu arautzaile horietara zuzentzen bada.

Adierazitakoari jarraiki, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak eskumena izango du lizitazio honen garapenarekin loturiko auzigaiak, eta, oro har, kontratuaren prestaketa eta esleipen fasearen ingurukoak ebazteko. Jurisdikzio zibilak, berriz, eskumena izango du kontratuaren efektuen, betetzearen eta azkentzearen inguruan aldean artean sortutako eztabaidak ebazteko.

Kontratuaren gainean auzia gertatuz gero, aldeak Donostiako auzitegien eta epaitegien jurisdikzioaren mende geratuko dira.

## 5. Kontratazio-organoa

Kontratazio Organoa SUSTAPENeko Administrazio Kontseilua da, eta horrek, aplikatzeko zuzenbide pribatuko arauari jarraiki, kontratuaren inguruan jarduera zehatzak egiteko egokitzat jotako pertsonak ahaldundu ahalko ditu.

## 6. Epea

Kontratua Dokumentu Deskribatzaile honetako 18. atalaren arabera egingo da, eta kontratuaren epea behin betiko zehaztu ahal izango da lehia-elkarrizketaren prozedura eta gero; edonola ere, kontuan izango da esleipendun ateratzen den agente pribatuak inbertsioak berreskuratzeko (hasierako inbertsioak nahiz kontratuan zehar egin beharreko inbertsioak) behar duen denbora arrazoizkoa izatea.

Hala ere, lehia-elkarrizketaren prozedura ondoren kontraturako zehaztutako indarraldia aldatu ahal izango da, hots, gutxitu edo gehitu, gerora sortutako eta SUSTAPENari nahiz esleipendunari egotz ez dakizkiekeen egoerak medio.



Ondorio horietarako eta soilik izaera adierazgarriarekin, gerora sortutako eta SUSTAPENari nahiz esleipendunari egotz ez dakizkiekeen egoera horiek izan daitezke Txomin Enea auzoan etxebizitza berriak eraikitzen aurreratzea edo atzeratzea. Ildo horretan, behin betiko eskaintzak aurkeztera gonbidatutako hautagaiei Irtenbidea edo Irtenbideak aurkezteko emango zaien Dokumentuan, Dokumentu Deskribatzaile honetako 14. atalaren arabera, jasoko da "LM.06 - TXOMIN ENEA" AIUrako hirigintza-garapen berrian etxebizitza berriak eraikitzeke egutegia.

Halaber, kontratuaren indarraldia aldatzeko baldintzak eta horren irismena eta mugak behin betiko zehaztuko dira lehia-elkarriketaren prozedura egin eta gero. Hori Konponbidea edo Konponbideak jasotzen dituen Dokumentuan behar bezala ezarriko da, eta kontratazio publikoko araudia eta 2014/23/EB Zuzentarauaren mugak errespetatu beharko ditu.

Edonola ere, kontratuaren gehieneko iraupena (aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera adostutako aldaketa barne), formalizatzen denetik gehienez 20 urte igaro arte luzatu ahal izango da, District Heating sistemaren eta Dokumentu Deskribatzaile honetako 2.2 atalean adierazitako eraikinaren onarpen-akta eman eta ondorengo egunetik kontatzen hasita (District Heating sistemaren onarpen-akta eta eraikinaren onarpen-akta egun ezberdinetan ematen badira, azken akta eman eta ondorengo egunetik hasiko da zenbatzen). Kontratuaren indarraldia Irtenbidea edo Irtenbideak jasotzen dituen Dokumentuan zehaztuko da, eta 2014/23/EB Zuzentarauaren mugak errespetatu beharko ditu.

Kontratua edozein arrazoi medio azkentzen bada, SUSTAPENari itzuliko zaio partzela, AZPIEGITURA eta kontratuan zehar egindako obrak eta inbertsioak, inolako kargarik eta zamarik gabe, Agiri honetako 24. atalean adierazitakoaren arabera.

Dena den, atal honetako hirugarren paragrafoan adierazitakoa kontuan hartuta, Txomin Enea auzoan etxebizitza berrien eraikuntza aurreratzen edo atzeratzen bada, SUSTAPENak kontratua baliogabetu ahal izango du, atal honi jarraiki, kontratuaren indarraldia aldatu ordez. Kontratuaren ebazpen hori emateko baldintzak behin betiko zehaztu beharko dira lehia-elkarriketaren prozedura eta gero, eta, nolana ere, kalte-galeren gainean dagokion kalte-ordaina zehaztu beharko da, inbertsioen amortizazio-maila eta esleipendunaren eskaintzan jasotako aurreikuspenak kontuan hartuta.

## **7. Elementu ekonomikoak**

### **7.1. Elementu ekonomikoak zehaztea**

Lizitazio honen barneko elementu ekonomiko guztiak lizitatzailleek proposatuko dituzte haien azken eskaintzetan eta behin betiko zehaztuko dira lehia-elkarriketaren prozedura eta gero, ondorengo premisapean:

- SUSTAPENak District Heating sistemaren azken bezeroei zuzenean fakturatuko die energia termikoa saltzeagatik ezarritako prezioa.



- SUSTAPENAK kontratuaren esleipendun ateratzen den agente pribatuari ordainduko dio saldutako energia termikoaren kopuruaren mendeko zenbatekoa (kWh prezioa eta termino finakoaren prezioa).

Horrez gain, kontratuaren esleipendunaren kontura izango dira kontratua gauzatzeari datzekion gastu guztiak (energia termikoa ekoizteko beharrezko lehen mailako energia erostearekin eta azken bezeroari banatzeko energia bultzatzeko sistemekin lotutakoak barne).

## 7.2. Elementu ekonomikoak berrikustea

Elementu ekonomikoak berrikusteko baldintzak behin betiko zehaztuko dira lehia-elkarrizketaren prozedura eta gero; edonola ere, hartutako azken irtenbide teknikoaren mende egongo da.

## 7.3. Kontratuaren balio estimatua

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko otsailaren 26an zerbitzuak emateko kontratuak esleitzearen gainean emandako 2014/23/EB Zuzentarauko 8. artikulua ondorioetarako, kontratuaren balio estimatua 22.082.268 eurokoa da (BEZ sartu gabe).

Balio hori Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko otsailaren 26an zerbitzuak emateko kontratuak esleitzearen gainean emandako 2014/23/EB Zuzentarauko 8. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

Kontratuaren balio estimatu hori kalkulatzeko, soilik orientazio gisa eta balio estimatu hori zehaztearekin lotuta kontratazio-arauiak ezarritako ondorioetarako, ondorengoak kontuan izan dira:

- District Heating sistemaren ustiapenaren inguruko balio estimatua: 18.912.137 euro (BEZ kanpo).
- Zentral termikoa hartuko duen eraikinaren obra zibilaren eta instalazioen eta gainerako inbertsioen zenbatekoaren balio estimatua gehitua, SUSTAPENAK esleipendunari ordainduko diona eraikina eta haren alde egiaztatutako inbertsioak entregatzeko unean, Dokumentu Deskribatzaile honetako 2.2. atalean ezarritakoaren arabera. Une honetan, gutxi gorabehera, 3.170.131 eurokoa da (BEZ sartu gabe).

## 8. Procedimiento y forma de adjudicación del contrato. Mesa de Diálogo Competitivo

Prozedura hau lehia-elkarrizketaren bitartez esleituko da. Horretarako, SUSTAPENAK elkarrizketa zuzenduko du hautatutako hautagaiekin jarraian aurreikusitako moduan, premiei erantzuteko aurkeztutako irtenbidea edo irtenbideak garatze aldera, horietan oinarrituta aurkeztu beharko baitute azken eskaintza, eta hautatutako 3 hautagaik beren eskaintza aurkezteko oinarri gisa erabiliko da.



Lehia Elkarrizketarako Mahaia eratuko da, eta horren helburu nagusia izango da kontratuaren esleipen-prozesuan laguntza ematea. Mahaiaren funtzioak maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuko 23. artikuluan aurreikusten dira; Dekretu horren bidez, Sektore Publikoko Kontratuen inguruko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen da.

Lehia Elkarrizketarako Mahaian ondorengo kideak egongo dira:

- SUSTAPENako kudeatzailea edo eskuordetzen duen pertsona.
- Donostiako Udaleko Kontu-hartzailetza eta Kontabilitateko Zuzendaritzak izendatutako pertsona.
- Donostiako Udaleko Proiektuen eta Obren Zuzendaritzak izendatutako pertsona.
- Hirigintza-garapen berriaren (AIU "LM.06 - TXOMIN ENEA") jarduera koordinatzeko arduraduna.
- SUSTAPENako Kudeatzaileak izendatutako pertsona.

### **8.1. 1. Fasea: hautagaiak hautatzeko aurretiko fasea**

Kaudimen-baldintzak betetzen dituzten hautagaiak aurrez hautatzeko fasea gehienez 6 hautagai hautatzean amaituko da.

Fase horretan, enpresak gaitasunaren eta kaudimenaren arabera hautatuko dira.

### **8.2. 2. Fasea: irtenbideak definitzeko eta hautagaiekin elkarrizketak egiteko fasea**

Irtenbideak definitzeko eta hautagaiekin elkarrizketak egiteko faseak bi azpifase izango ditu aldi berean, eta dagozkion balorazio-irizpideen arabera egingo da.

Lehen azpifasea (1. azpifasea) 3 hautagai hautatzean amaituko da.

1. azpifase horretatik ateratako 3 hautagaiekin elkarrizketa bat (2. azpifasea) egingo da, prozeduran lortu nahi diren premiak betetzeko baliabide egokiak zehazte eta definitze aldera. Elkarrizketan, kontratuaren inguruko alderdi guztiak eztabaidatuko dira aipatu hautagaiekin.

Elkarrizketan, lizitazaile guztiak berdin tratatuko dira, eta, bereziki, ezingo da informazioa diskriminazioa eraginez eman, lizitazaile batzuen alde eta beste batzuen kontra.

SUSTAPENAK elkarrizketarekin jarraituko du harik eta premiak erantzun ditzaketan irtenbideak zehazteko gai dela frogatu arte.



Elkarrizketa itxi dela aitortzean eta horren berri parte-hartzaileei ematean, SUSTAPENAK azken eskaintza aurkeztera gonbidatuko ditu, elkarrizketa-fasean zehar aurkeztutako eta zehaztutako irtenbidean edo irtenbideetan oinarritua. Horretarako, azken eguna zein den adieraziko die, besteak beste.

### 8.3. Azken eskaintzen aurkezpena eta azterketa

Azken eskaintzetan proiektua egiteko eskatutako eta beharrezko elementu guztiak sartu behar dira.

Lehia Elkarrizketarako Mahaiak eskatu ahal izango ditu aurkeztutako eskaintzen gaineko xehetasunak edo azalpenak, horien doikuntzak edo informazio osagarria, betiere, horrekin funtsezko elementuak aldatzen ez badira; hots, eskumena faltsutu edo diskriminazio-efektua izan dezakeen aldaketa gertatzen ez bada.

Lehia Elkarrizketarako Mahaiak lizitatzailerak aurkeztutako eskaintzak ebaluatuko ditu, Irtenbidea edo Irtenbideak jasotzen dituen Dokumentuan ezarritako esleipen-irizpideen arabera, eta ekonomikoki abantaila gehien eskaintzen duen eskaintza hautatuko du.

Lehia Elkarrizketarako Mahaiak ekonomikoki abantaila gehieneko eskaintza egin duen lizitatzailerari eskatu ahal izango dio bertako alderdi jakin batzuk argitzeko edo bertan jasotako konpromisoak berresteko, betiere, horrekin eskaintzaren funtsezko elementuak aldatzen ez badira eta eskumena faltsutzen edo diskriminazio-efektua gertatzen ez bada.

## 9. Publizitatea

Lizitazioa honako hauetan iragarriko da: Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta SUSTAPENAREN kontratugilearen profilean.

Kontratuaren esleipena SUSTAPENAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratuaren formalizazioa honako hauetan argitaratuko da: Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta SUSTAPENAREN kontratugilearen profilean.

Kontratugilearen profilerari sartzeko, honako web orri hauek erabili ahal izango dira: [www.donostia.org](http://www.donostia.org) y [www.fomentosansebastian.org](http://www.fomentosansebastian.org)

Iragarkiak argitaratzeko gastuak esleipendunak ordaindu beharko ditu.





## 10. Bermeak

### 10.1. Kontratua formalizatzen denetik bere gain dituen betebeharrak betetzeari buruzko bermea District Heating sistema abian jarri arte

Kontratuaren esleipendun den eragile pribatuak, **kontratua formalizatzen denetik District Heating sistema abian jarri arte bere gain hartutako betebeharrak** betetzen direla bermatzeko asmoz, honako hau betetzera behartuta izango da: egingo dituen inbertsioen zenbatekoaren % 50aren pareko bermea eratzera (BEZa barne), dokumentu deskribatzaile honen 2.1 idatz-zatiko hirugarren gidoian adierazitakoa betez.

Besteak beste, berme hori, District Heating sistema abian jarri eta urtebeteko epean, sisteman bertan eta AZPIEGITURAN aurkitzen diren akatsetarako izango da, betiere, aurkitutako akatsak kontratua gauzatzean gertatutakoak izan badira.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztutako lizitatzailak aipatutako bermea hamar egun balioduneko epearen barnean eratu beharko du, SUSTAPENAK egindako eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 96. artikuluan (SPKLTB) ezarritako bideak erabiliz eratu ahalko da.

Abal modura aurkezten bada, hura plegu honetan **5. eranskin** modura jasotako ereduari egokituko zaio.

Bermea eratu izanaren egiaztapena ezingo da baliabide elektronikoen bidez egin.

Kontratua formalizatzen denetik District Heating sistema abian jarri arte bere gain hartutako betebeharrak betetzeari buruzko bermearen itzulketa SPKLTBren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da, District Heating sistema abian jarri eta hura jaso izanaren akta eman urtebete igaro ondoren, dokumentu deskribatzaile honen 2.2 idatz-zatiarekin bat etorriz, eta kontratuaren esleipendun den eragile pribatuak bere kontratuko betebeharrak beteta.

Idatz-zati honetan aurreikusitakoaren arabera osatutako bermearen gainean betetzen badira esleipendunari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak, hark bermea berriz jarri edo handitu egin beharko du, dagokion kopuruan, egikaritzen denetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean; bestela, kontratua ezeztatu ahal izango da.

### 10.2. District Heating sistema abian jartzen denetik kontratua amaitu arte bere gain hartutako betebeharrak betetzeari buruzko bermea, eta kontratuaren egikaritzearen akatsei dagozkionak

Horrez gain, District Heating sistemaren jaso izanaren Akta ematen den datan, Dokumentu Deskribatzaile honen 2.2. atalaren arabera, kontratuaren esleipenduna den eragile pribatuak SUSTAPENARI entregatu beharko dio: bere azken eskaintzan



esleipenduna den eragile pribatuak aurkeztutako negozio-planean aurreikusitako fakturazio-zenbatekoaren % 5aren baliokideko berme bat (BEZa kanpo).

Berme hori eratuko da **District Heating sistema abian jartzen denetik kontratua amaitu arte kontratuaren esleipendun den eragile pribatukoak bere gain hartutako betebeharrak** betetzen direla bermatzeko asmoz.

Eratzearen ondorioetarako, kontratua formalizatzen denetik District Heating sistema abian jarri arte bere gain dituen betebeharrak betetzeari buruzko bermerako aurreko 10.1 idatz-zatian deskribatutakoari erreparatuko zaio.

District Heating sistema abian jartzen denetik kontratua amaitu arte kontratuko esleipenduna den eragile pribatuak bere gain hartutako betebeharrak betetzeari buruzko bermearen itzulketara, SPKLTBren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da, berme-epea igarota dagoela eta kontratuko esleipenduna den eragile pribatuak bere kontratuko betebeharrak beteta.

Idatz-zati honetan aurreikusitakoaren arabera osatutako bermearen gainean betetzen badira esleipendunari eska dakizkiokkeen zigorrak edo kalte-ordainak, hark bermea berriz jarri edo handitu egin beharko du, dagokion kopuruan, egikaritzen denetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean; bestela, kontratua ezeztatu ahal izango da.

## **11. Partaidetza-eskaerak lehiaketako elkarrizketan parte hartu beharreko hautagaiak aukeratzeko. 1. fasea**

### **11.1. Xedapen orokorra**

Prozedura honetan parte hartzeko eskaera egin ahaliko dute, balizko lizitatzailer modura, jarduteko erabateko gaitasuna duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzeritarrek, baldin eta kontratatzeko debekuren baten barnean ez badaude eta beren kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala ondoren aipatutako baldintzetan egiaztatzen badute.

Idatz-zati honetan ezarritako ahalmen eta kaudimeneko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak 6 baino gehiago badira, 6 hautatuko dira, 11.5 idatz-zatian zehaztutako irizpideen arabera.

Lehia-elkarrizketan parte hartzeko eskaerak 2016ko martxoaren 25ean, 10:00ak arte egin ahal izango dira. *[OHARRA: 30 egun natural iragarkia EBAOra bidaltzen denetik]*

### **11.2. Baldintzak. Ahalmena eta kaudimena**

Eskatzaileek kontratuaren xede diren prestazioan emateko eskatu daitekeen lanbide edo enpresako gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.



Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izan ahalko dute soilik haren prestazioak jardueraren helburu, xede edo esparruaren barnean daudenean, eta haren estatu edo sorrera-arauen arabera, bereak direnak.

Nolanahi ere, kontratatzeko ahalmena izango dute Europar Batasuneko kide eta espainiarrak ez diren enpresak eta, ezarrita dauden Estatuko legeriaren arabera, gaituta daudenak; hala, SPKLTBren ezarritakoa aplikatuko da.

Europar Batasunekoak ez diren Estatuetakoko pertsona fisiko edo juridikoek beren gaitasuna egiaztatu beharko dute Estatuko Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostenaren bidez edo enpresaren helbidea dagoen lurralde-esparruko Kontsuleko Bulegoko txostenaren bidez. Txosten horren bidez justifikatu beharko dute, atzerriko enpresaren jatorrizko Estatuak enpresa espainiarrak onartzen dituela Administrazioarekin egindako kontratazioan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 3. artikuluan zerrendatutako enbeldintsuak diren sektore publikoko erakundeekin, antzeko eran, funtsean.

Elkarrekikotasunari buruzko txostena baztertuko da Merkataritzako Munduko Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu zuten Estatuko enpresei dagokienez.

SUSTAPENAREKIN kontratatu ahalko dute xede horretarako aldi baterako eraturako enpresaburuen batasunek, eta horretarako ez da beharrezkoa izango haiek eskritura publikoan formalizatzea beren aldeko kontratuaren esleipenean egin arte; hala, SPKLTBn ezarritakoa aplikatu ahalko da.

Lehia-elkarrizketan parte hartzeko asmoa duten eskatzaileek ondorengo kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala batu beharko dute:

- Honako esparru hauen kontratuaren balioko negozio-bolumena izatea gutxienez amaitutako azken hiru ekitaldietan: eraikinen eta instalazioen energia-zerbitzuetan eta energia-kudeaketan eta eraikin nahiz instalazioetako energia termikoaren ekoizpenean eta banaketan erabiltzaile anitzekin.
- Energia-zerbitzuetan eta eraikin nahiz instalazioetako energia-kudeaketan esperientzia izatea; hala, zerbitzu horiek emateagatik, 6.750.000 euro baino gehiagoko fakturazioa egiaztatu beharko du, amaitutako azken bost ekitaldietan.
- Erabiltzaile anitzeko eraikin eta instalazioetan energia termikoa ekoizten eta banatzen esperientzia izatea; hala, zerbitzu horiek emateagatik, 2.250.000 euro baino gehiagoko fakturazioa egiaztatu beharko du, amaitutako azken bost ekitaldietan.

Aurrez aipatutako kaudimena egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean oinarritu nahi duten eskatzaileek, haiekin duen loturaren izaera juridikoa alde batera utzita, emandako eskritura aurkeztu beharko dute (2. eranskinean jasotako ereduaren



arabera) notarioaren aurrean, eta bertan tartean dauden enpresek honako hau adieraziko dute: eskatzaileak parte hartzen duen likidazio-baldintzak ezagutzen dituela; aipatutako kaudimena dutela, haren egiaztatzea aurkeztuz (11.4 idatz-zatian ezarritako eran); eta eskatzailearen esku jartzen dituela, esleipenduna gertatuz gero, kontratua egikaritzeko beharrezko baliabideak (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuz eta SUSTAPENAK ondoren haren ordezteko edo aldaketa berariaz baimendu beharko du). Aipatutako idatzia aurkezteak SUSTAPENAK konpromiso hori onartzearen ondorioak izango ditu, delako eskatzailea esleipenduna gertatzen den kasurako.

Gainera, eskatzaileek ondorengo kudeaketa-sistemen ziurtagiriak izan beharko dituzte: ISO 14001 eta ISO 50001 edo baliokidea.

### 11.3. Parte hartzeko eskaerak aurkezteko tokia eta denbora.

Lehia-elkarrizketan parte hartzeko eskaerak SUSTAPENAKO jendearentzako arreta-bulegoko erregistroan aurkeztu ahalko dira, ondorengo posta-helbidean: “DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A., San Roque 120, Etxe Zuri eraikina, PK 20.009, Donostia/San Sebastián”, astelehenetik ostiralera, aurreko 11.1 idatz-zatian ezarritako epearen barnean, ondoren aipatutako dokumentazioarekin batera, honako hauek adieraziz: parte hartzen den kontratazioa, enpresaren izena, eskaera sinatzen duenaren izen-abizenak eta zer izaerarekin egiten duen, telefono eta fax zenbakiak eta helbide elektronikoa, bai eta jakinarazpenak jasotzeko hautatutako bidea ere, deskribapen-dokumentu honetan **3. eranskin** modura jasotako ereduari egokituko zaiona.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Proposamenak aurkezteko idatz-zati honen lehenengo paragrafoan aipatutako ordumuga ez da aplikatuko proposamenak postaz igortzen direnean, eta kasu horretan, aurkezpena proposamenak aurkezteko epeko azken eguneko edozein ordutan egin ahalko da, baldin eta hurrengo idatz-zatian adierazitako baldintzak betetzen badira.

Lizitatuak beren proposamenak postaz bidaltzen badituzte, bidalketaren ezarpen-data postetxean justifikatu beharko dute, eta SUSTAPENARI eskaintzaren bidalketa iragarriko dio telex, fax (943.444.794) edo premiazko telegrama bidez egunean bertan. Gainera, bidalketaren iragarpena posta elektronikoz igorri ahalko da (honako helbide honetara: [fomentoss@donostia.eus](mailto:fomentoss@donostia.eus)) Iragarria posta elektronikoz bidaltzea baliozkoa izango da soilik, baldin eta bidalketa nahiz jaso izanaren berri badago, haien daten nahiz jakinarazpenen eduki osoaren berri badago, eta igortzaile nahiz hartzaileari zehatz-mehatz identifikatzen bazaio.

Kasu horretan, inprimatutako kopia lortuko da eta erregistratuko, espedientean jasoko dena.

Bi baldintzak bete gabe dokumentazioa ez da onartuko iragarkian adierazitako epea amaitu ondoren jasotzen bada.



Aipatutako datatik 10 egun natural igarota proposamena jaso ez bada, nolahi ere, hura ez da inolaz ere onartuko.

#### 11.4. Parte hartzeko eskaeren edukia

Eskatzaileek gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko dute, eta haren barnean ondoren zehaztutako dokumentazioa jasoko da: enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zer izaerarekin egiten duen; hori guztia ondo ulertzeko moduan idatzita.

Gutun-azalaren aurrealdean ondorengo inskripzioa jarriko da, halaber: *“I. fasea. Kontratista bat hautatzeko prozeduran parte hartzeko eskaera jarduera orokor nahiz integratu bat egiteko, hau da, Donostiako LM.06-TXOMIN ENEA” Eremuko District Heating-eko sistema bat ezarri, abiarazi, ustiatu eta mantentzea”*.

Gutun-azal horren edukia, aparteko orrialde batean jarriko dena, ondoren adierazitakoa izango da.

- a) Eskatzaileari eta, hala badagokio, haren ordezkariari eskatutako obra-gaitasunaren egiaztagiriak.
- Pertsona fisikoak izango ziren enpresaburuen jarduteko gaitasuna eratzeko eskritura edo dokumentuaren bidez, estatutuen edo sorrera-aktaren bidez egiaztatuko da; bertan beren jarduera erregulatzeko araudiak jasoko dira, behar bezala inskribatuta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan, zer-nolako pertsona juridikoa den kontuan hartuta.
  - Europar Batasuneko kide diren Estatuetakoen enpresaburuen jarduteko gaitasuna (espainiarrak ez direnak) dagokion erregistroan egindako inskripzioarekin egiaztatuko da ezarrita dauden Estatuako legeriarekin bat etorritik, zinpeko aitortpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztuz, aplikagarriak diren Europako Erkidegoko xedapenen arabera.
  - Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna Estatuak Espainiako Misió Diplomatiko Iraunkorraren txostenaren bidez egiaztatuko da edo enpresaren helbidea dagoen lurralde-esparruko Kontsuleko Bulegoko txostenaren bidez. Txosten horren bidez justifikatu beharko dute, atzerriko enpresaren jatorrizko Estatuak enpresa espainiarrak onartzen dituela baita ere Administrazioarekin egindako kontratazioan eta SPKLTBren 3. artikuluan zerrendatutako enpresa berdintsuak diren sektore publikoko erakundeekin, antzeko eran, funtsean.

Elkarrekotasunari buruzko txostena baztertuko da Merkataritzako Munduko Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu zuten Estatuak enpresei dagokienez.



- Pertsona fisikoak izango ziren enpresaburuen jarduteko gaitasuna Nortasun Agiri Nazionala edo bere Estatuko beste dokumentu baliokide bat aurkeztuz egiaztatuko da.
- Beste baten izenean azaltzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek, Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta xede horretarako duen behar besteko boterea ere. Enpresa pertsona juridikoa balitz, ahalmena Merkataritzako Erregistroan inskribatuta egon beharko da, hala eskatzen denean Merkataritza Erregistroko Araubidearen 94. artikuluan ezarritakoa betez edo, hala badagokio, dagokion Erregistro Publikoan, zer-nolako pertsona juridikoa den kontuan hartuta.
- Aldi baterako batasun baten barnean parte hartu nahi duten enpresaburuek hura osatzen dutenen izenak eta egoerak eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte, bai eta aldi baterako batasunena formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere esleipendun gertatuz gero. Aldi baterako batasun baten barnean parte hartu nahi duten enpresaburuek era solidarioan behartuta izango dira eta batasuneko ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute (behar besteko ahalmenekin) kontratutik sortutako eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko, hura amaitzen den arte; nolahi ere, eman ditzaketen mankomunatuak ahalmenak izatea errespetatu ahalko da zenbateko garrantzitsuak kobratu eta ordaintzeko.

Dokumentazio hori guztia jatorrizkoan aurkeztuko da, edo behar bezala konpultsatu edo egiaztatutako kopian.

- b) Eskatzailea SPKLTBren 60.1 artikuluan ezarritako kontratatze debekuren batean ez dagoela dioen testigantza judiziala edo administrazioko ziurtagiria, kasuaren arabera. Dokumentu hori agintari eskudunak eman ezin duenean, administrazioko aginpide, notario publiko edo gaitutako erakunde profesional baten aurrean emandako adierazpen arduratsu batek ordeztu ahalko du. Europar Batasuneko kide diren Estatuetakoen enpresak direnean eta aukera hori dagokion Estatuko legerian ezarrita dagoenean, aginpide judizial batek emandako adierazpen arduratsuak ere ordeztu ahalko du.

Adierazpen horren barnean sartuko da eskatzailea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela dioen adierazpena, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak.

- c) Eskatzailea deskripzio-dokumentu honen 11.2 idatz-zatian eskatutako kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionalaren jabe dela dioen egiaztatzea.
- Honako esparru hauen negozio-bolumenari buruzko adierazpen bat amaitutako azken hiru ekitaldietan: energia-zerbitzuen eta eraikin nahiz instalazioetako energia-kudeaketan; erabiltzaile anitzekin emandako eraikin nahiz instalazioetako energia termikoaren ekoizpen eta banaketan. Negozio-bolumen hori egiaztatzeke, onartutako eta Merkataritza Erregistroan



utzitako urteko kontuak erabiliko dira, lizitazailea Erregistroan inskribatuta egonez gero. Inskribatuta egon ezean, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean utzitako eta onartutako urteko kontuak beharko dira.

- Amaitutako azken bost ekitaldietako energia-zerbitzuak eta eraikin nahiz instalazioetako energia-kudeaketako zerrenda, eta bertan jasoko dira: datak, hartzailea, publikoa edo pribatua, eta haien fakturazioaren zenbatekoa. Emandako zerbitzu horiek egiaztatu egingo dira hartzailea sektore publikoko erakundea bada, eskumeneko organoak emandako edo bisatutako ziurtagirien bitartez; hartzailea subjektu pribatua bada, aldiz, hark egindako ziurtagiria edo, ziurtagiririk ezean, lizitazailearen aitortzea beharko dira.
  - Amaitutako azken bost ekitaldietan erabiltzaile anitzekin emandako eraikin nahiz instalazioetako energia termikoa ekoitzi eta banatzeko zerbitzuen zerrenda, eta bertan jasoko dira: datak, hartzailea, publikoa edo pribatua, eta haien fakturazioaren zenbatekoa. Emandako zerbitzu horiek egiaztatu egingo dira hartzailea sektore publikoko erakundea bada, eskumeneko organoak emandako edo bisatutako ziurtagirien bitartez; hartzailea subjektu pribatua bada, aldiz, hark egindako ziurtagiria edo, ziurtagiririk ezean, lizitazailearen aitortzea beharko dira.
- d) Hala badagokio, adierazpenen notarioaren akta eskatzaileak, eskatutako kaudimena egiaztatzeke, beste erakunde batzuen kaudimenean oinarritu nahi duenerako, **2. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.
- e) Eskatzaileak ondorengo kudeaketa-sistemen frogagarria izan beharko du: ISO 14001 eta ISO 50001 edo baliokidea.
- f) Enpresa atzerritarrek berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute, hau da, edozein mailatako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioa bete beharko dutela, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako eta, hala badagokio, eskatzaileari egokitu dakioken atzerriko foru jurisdikzionala ukatuz.
- g) Parte hartzeko eskaera, **4. eranskin** modura erantsitako ereduaren arabera.
- h) SUSTAPENAK egindako jakinarazpenak jasotzeko hautatutako bidea izendatzeko dokumentua, deskribapen dokumentu honetan **3. eranskin** modura jasotako ereduaren arabera.

Enpresa atzerritarrek dokumentazioa ofizialki euskarara itzulita edo, hala badagokio, gaztelaniara aurkeztuko dute.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitazaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro ofizialean inskribatutako eskatzaileek, erregistroko abokatu arduradunak emandako inskripzioko (indarrean dagoena) ziurtagiriaren kopia aurkeztu ahalko dute. Inskripziozko ziurtagiriarekin batera,



eskataileak sinatutako adierazpen arduratsu bat aurkeztu beharko da; haren bidez, dokumentuan aipatutako egoerak ez direla aldatu adieraziko da.

Lehia Elkarrizketarako Mahaiak egokiak iruditzen zaizkion egiaztatze-lanak egiteko eskubidea gordetzen du edo beharrezkotzat jotzen duen nahi adina dokumentazio osagarri eskatzeko eskubidea, eskataileek emandako informazioa benetakoa dela egiaztatzeko asmoz.

### 11.5. Hautagaiak aukeratzea

Lehia Elkarrizketarako Mahaiak eskataileen nortasuna eta kaudimena egiaztatuko ditu, 2. fasera pasako direnak aukeratzeko.

Parte hartzeko sei eskari baino gutxiago badaude, baldintzak betetzen dituzten eskataile guztiak pasako dira 2. fasera.

Aipatu gaitasun- eta kaudimen-baldintzak sei eskatailek baino gehiagok betetzen badituzte, Lehia Elkarrizketarako Mahaiak sei aukeratuko ditu; hain zuzen ere, aurreko 11.2 atalean azaldutako kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionaleko baldintzak ondoen betetzen dituztenak. Zehazki, puntu-banaketa honen arabera puntuazio handiena lortzen duten sei eskataileak hautatuko ditu:

- Arlo hauetako negozio-bolumena: eraikin eta instalazioetako zerbitzu eta kudeaketa energetikoa, erabiltzaile askoko eraikin eta instalazioetako energia termikoaren ekoizpena eta banaketa. Zehazki, itxitako azken hiru ekitaldietako negozio-bolumenak kontratuan zenbatetsitako balioa izan behar du, eta egiaztatu egin behar da. Gehienez 40 puntu.

Honela banatuko dira:

- 40 puntu arlo horretan negozio-bolumen handiena izan duen eskataileari.
- 35 puntu arlo horretan bigarren negozio-bolumen handiena izan duen eskataileari.
- 30 puntu arlo horretan hirugarren negozio-bolumen handiena izan duen eskataileari.
- 25 puntu arlo horretan laugarren negozio-bolumen handiena izan duen eskataileari.
- 20 puntu arlo horretan bosgarren negozio-bolumen handiena izan duen eskataileari.
- 15 puntu arlo horretan seigarren negozio-bolumen handiena izan duen eskataileari.





- 10 puntu arlo horretan zazpigarren negozio-bolumen egiaztatu handiena duen eskatzaileari.
  - 5 puntu arlo horretan zortzigarren negozio-bolumen handiena izan duen eskatzaileari.
  - Gainerako eskatzaileei ez diete punturik emango.
- Eraikin eta instalazioetako energia-zerbitzuen prestazioan eta energiaren kudeaketan esperientzia izatea. Itxitako azken bost ekitaldietako arlo horretako fakturazioak, oro har, 6.750.000 euro baino handiagoa izan behar du, eta egiaztatu egin behar da. Gehienez 25 puntu.

Honela banatuko dira:

- 25 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 22,5 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan bigarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 20 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan hirugarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 17,5 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan laugarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 15 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan bosgarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 12,5 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan seigarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 10 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan zazpigarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 7,5 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan zortzigarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 5 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan bederatzigarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 2,5 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan hamargarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.



- Gainerako eskatzaileei ez diete punturik emango.
- Erabiltzaile askoko eraikin eta instalazioetan energia termikoa ekoizteko eta banatzeko esperientzia izatea. Itxitako azken bost ekitaldietako arlo horretako fakturazioak, oro har, 2.250.000 euro baino handiagoa izan behar du, eta egiaztatu egin behar da. Gehienez 10 puntu.

Honela banatuko dira:

- 10 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 9 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan bigarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 8 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan hirugarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 7 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan laugarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 6 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan bosgarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 5 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan seigarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 4 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan zazpigarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 3 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan zortzigarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- 2 puntu itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan bederatzigarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- Puntu 1 itxitako azken bost ekitaldietan aipatu zerbitzuen prestazioan hamargarren fakturazio handiena izan duen eskatzaileari.
- Gainerako eskatzaileei ez diete punturik emango.

Ondoren, Lehia Elkarrizketarako Mahaiak hautatutako eskatzaileen zerrenda egingo du, eta 2. fasera pasatzea eta hurrengo atalean zehaztutako dokumentazio teknikoa aurkeztea eskatuko die.



2. fasera pasatzera gonbidatutako eskatzaileen hautaketarekin txosten juridikoa egingo da.

Prozesu horren emaitzaren berri hautatutakoei ez ezik ez hautatutakoei ere emango diete. Hautatutakoei aipatu eskaria bidaliko diete, haiek lehenetsitako moduan eta, halaber, posta elektronikoz.

Eskari horretan, aukeratutako hautagaiei adieraziko diete 40 egun natural izango dituztela, eskaria jasotako egunetik kontatzen hasita, hurrengo atalean zehaztutako proposamen-aurrerapena aurkezteko.

## 12. Konponbideen definizioa. 2. faseko 1. azpifasea.

### 12.1. Aurkeztu beharreko dokumentazio tekniko: konponbide finantzario, tekniko eta juridikoaren proposamen-aurrerapena

2. faseak bi azpifase izango ditu: lehenbizikoan (1. azpifasea) hiru hautagai aukeratuko dituzte; eta bigarrenean (2. azpifasea), hiru hautagai horiekin, Dokumentu Deskribatzaile honetako 13. atalean zehaztutako lehia-elkarrizketa egingo da.

2. faseko 1. azpifasean, hautatuek gutun-azal itxi bat aurkeztu behar dute, aurreko atalean parte hartzeko eskaria aurkezteko zehaztutako moduan. Gutun-azal horretan proposamen-aurrerapena aurkeztuko dute, kontuan hartuta (i) Dokumentu Deskribatzaile honetan jasotako lehia-elkarrizketarako gaiak eta (ii) zentral termikoaren eraikina egongo den lursailari buruzko informazioa. Informazio hori 2. faseko 1. azpifasean parte hartzera gonbidatutako hautatuei emango die SUSTAPENAK.

Gutun-azalean jarri behar dira enpresaren izena, proposamena sinatzen duen pertsonaren izen-abizenak eta pertsona horren izaera; hori guztia erraz irakurtzeko moduan.

Gutun-azalaren atzealdean honako hau idatzi behar da: “2. faseko 1. azpifasea. *Proposamen-aurrerapena, Donostiako LM.06-TXOMIN ENEA eremuan District Heating sistema bat ezartzeko, martxan jartzeko, ustiatzeko eta mantentzeko jarduera global eta integratu bat gauzatzeko kontratista aukeratzeko prozedurarena*”.

Gutun-azal horren edukia aparteko orri batean zerrendatuko da. Hona hemen zer eduki behar duen, zehatz-mehatz:

- **Konponbide tekniko, finantzario, ekonomiko eta juridikoaren proposamen-aurrerapena, honako hauez osatua:**
  - a) Proposatutako konponbide teknikoaren memoria, justifikazio-kalkuluen zebatespena barne. Sistemako ekipamendu eta instalazio nagusien ezaugarri teknikoen deskribapena.



- b) Zentral termikoa egongo den eraikinaren ezaugarri eta espezifikazioak, proposatutako konponbide teknikoaren arabera; betiere, proposatutako konponbide tekniko mota horretarako indarrean dagoen araudia bete behar da. Zehaztu behar dira garaierak, azalerak, pisuak, hondeaketak, aireztapenak, erresistentzia gutxiko azalerak eta proposatutako konponbide teknikorako beharrezkoak diren eraikuntza-betekizun guztiak.
- c) Negozio-plana eta proposamen ekonomiko-finantzarioa; salmenta-prezioak (kWh-ren prezioa eta prezio finkoa) eta kontratuaren epea zehatz-mehatz adierazi behar dira.
- d) Ustiatze- eta mantentze-plana.
- e) Zerbitzuaren kalitate-plana.
- Intzidentziak eta/edo matxurak konpontzeko lanak hasteko epe luzeena, bezeroei arreta emateko telefono-zerbitzuan intzidentziaren eta/edo matxuraren berri jasotako unetik kontatzen hasita. Epe horrek ezin du izan Dokumentu honetako 2.3 ataleko seigarren marran adierazitakoa baino laburragoa.
  - District Heating sistemaren azken bezeroei emateko zerbitzuak, sistemarekin zerikusia dutenak baina Dokumentu honetan eskatutakoen osagarriak direnak.
  - District Heating sistemaren azken bezeroei emateko zerbitzuak, sistemarekin zerikusirik ez dutenak.
- f) District Heating sistemaren azken bezeroentzako arreta-zerbitzuaren deskribapena.
- g) DONOSTIAKO SUSTAPENAK eta kontratua esleitzen zaion agente pribatuak formalizatu beharreko kontratuaren proposamena.

Proposamen hori ez da loteslea izango eta SUSTAPENAK aldatzeko aukera izango du.

- h) Kontratua formalizatzen denetik District Heating sistema abian jartzen den arte egin beharreko lanen plan espezifikoa.

Plan horretan sartu behar da, halaber, Dokumentu honetako 2.1 atalaren arabera SUSTAPENARI egitea dagozkion lanen elkarlan- eta segimendu-plana (lan horiek dira, hain zuzen ere, zentral termikoa egongo den eraikineko banaketa-sarea eta obra zibila egiteko lanak).



- **Egin beharreko inbertsioen proposamenaren aurrerapena**

District Heating sistema ezartzeko eta martxan jartzeko egin beharreko inbertsio zehatzen memoria, honako hauez osatua: definizioa, helmena eta plangintza. Memorian jaso behar da, halaber, inbertsio bakoitzaren kostuaren zenbatespena.

Memorian obra, ekipamendu eta instalazioen ezaugarriak zehaztu behar dira, eta baita inbertsio bakoitza noiz egingo den ere, egutegi baten bidez. Hori guztia obra, ekipamendu eta instalazioak banakatuta eta inbertsio partzial eta osoaren zenbatekoak justifikatuta.

- **Energia termikoaren %75, gutxienez, eraginkortasun energetiko handiko sistemen eta/edo energia berriztagarrien bidez sortzeko baldintza betetzeko proposatutako konponbidearen aurrerapena.**

Memoria bat, non jasoko baitiren energia-aurrezpena, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien eta/edo eraginkortasun energetiko handiko sistemen erabilera sustatzeko jarduerak eta, zehazki, gutxienez energia termikoaren %75 eraginkortasun energetiko handiko sistemen eta/edo energia berriztagarrien bidez sortzeko baldintza betetzeko jarduerak (baldintza hori Dokumentu Deskriptibo honetako 2.2 atalean dago zehaztua).

Memoria teknikoak honako hauek edukiko ditu, gutxienez: proposatutako jardueren deskribapena, energia termikoa eraginkortasun energetiko handiko sistemen eta/edo energia berriztagarrien bidez sortzen dela justifikatzeko azterlan energetikoa, energia eraginkortasun handiko sistemen eta/edo energia berriztagarrien bidez sortuko den energia termikoaren portzentajea, azterlan tekniko-ekonomikoa, jarduerak egikaritzeko plana eta, hala badagokio, plan hori egikaritzeko kondizioak.

Nolanahi ere, proposatutako konponbideak Dokumentu honetako 2.2 atalean azaldutako baldintzak bete beharko ditu; hau da: (i) energia termikoaren %75, gutxienez, eraginkortasun energetiko handiko sistemen eta/edo energia berriztagarrien bidez sortzea; eta (ii) errektuntza-gasek dituzten partikula esekien isuria 20 mg/Nm<sup>3</sup> baino handiagoa ez izatea.

Aurkeztutako dokumentazioak, guztira, konponbide tekniko, ekonomiko, finantzario eta juridikoa eman behar du, eta konponbide hori egikaritzeko behar diren elementu guztiak hartu behar ditu aintzat.

**12.2. 2. faseko 1. azpifaseko aukeraketa-irizpideak**

Lehia Elkarrizketarako Mahaiak 1. fasean aukeratutako hautagaiek aurkeztutako dokumentazio teknikoa aztertu eta baloratuko du, irizpide hauen arabera:

- **Konponbide tekniko, ekonomiko, finantzario eta juridikoaren proposamen-aurrerapena. Gehienez 84 puntu.**



- Proposatutako konponbide teknikoaren memoria, justifikazio-kalkuluen zebatespena barne. Sistemako ekipamendu eta instalazio nagusien ezaugarri teknikoak. Zentral termikoa kokatuko den eraikinaren ezaugarriak eta zehaztapenak. **Gehienez 40 puntu.**
- Negozio-plana eta proposamen ekonomiko-finantzarioa. Ustiapen eta mantentze plana. Kontratua egiten denetik District Heating sistema abian jarri bitarte egin beharreko lanen plan espezifikoa. **Gehienez 40 puntu.**
  - ✓ kWh-ren prezioa. Gehienez 15 puntu.  
  
Formula honi jarraikiz baloratuko da:  $Lortutako puntuak = Puntuazio handiena - ((Eskaintza - Eskaintza onena) \times Puntuazio handiena / Eskaintza onena)$ .
  - ✓ Prezio finkoa. Gehienez 10 puntu.  
  
Formula honi jarraikiz baloratuko da:  $Lortutako puntuak = Puntuazio handiena - ((Eskaintza - Eskaintza onena) \times Puntuazio handiena / Eskaintza onena)$ .
  - ✓ Kontratuaren epea. Gehienez 10 puntu.  
  
Formula honi jarraikiz baloratuko da:  $Lortutako puntuak = Puntuazio handiena - ((Eskaintza - Eskaintza onena) \times Puntuazio handiena / Eskaintza onena)$ .
    - Ustiapen eta mantentze plana. Gehienez 3 puntu.
    - Kontratua egiten denetik District Heating sistema abian jarri bitarte egin beharreko lanen plan espezifikoa. Gehienez 2 puntu.
- Zerbitzuaren kalitate-plana. District Heating sistemaren azken bezeroei emateko zerbitzua. **Gehienez 3 puntu.**
  - ✓ Intzidentziak eta/edo matxurak konpontzeko lanak hasteko epe luzeena, bezeroei arreta emateko telefono-zerbitzuan intzidentziaren eta/edo matxuraren berri jasotako unetik kontatzen hasita. Epe horrek ezin du izan Dokumentu honetako 2.3 ataleko seigarren marran adierazitakoa baino laburragoa. Gehienez puntu 1.
  - ✓ District Heating sistemaren azken bezeroei emateko zerbitzuak, sistemarekin zerikusia dutenak baina Dokumentu honetan eskatutakoen osagarriak direnak. Gehienez 0.5 puntu.



- ✓ District Heating sistemaren azken bezeroei emateko zerbitzuak, sistemarekin zerikusirik ez dutenak. Gehienez 0.5 puntu.
- ✓ District Heating sistemaren azken bezeroei emateko zerbitzuak. Gehienez puntu 1.
- SUSTAPENAREN eta kontratuaren esleipenduna ateratzen den agente pribatuaren artean egin beharreko kontratu-proposamena.  
**Gehienez puntu 1.**

- **Egin beharreko inbertsioen proposamenaren aurrerapena. Gehienez 10 puntu.**

Inbertsio zehatzen definizio, helmen eta plangintzaz gain baloratuko dira, batetik, behar den inbertsio txikiena; eta bestetik, inbertsio hori itzultzeko egutegia.

- **Energia termikoaren %75, gutxienez, energia-eraginkortasun handiko sistemen eta/edo energia berriztagarrien bidez sortzeko baldintza betetzeko proposatutako konponbidearen aurrerapena. Gehienez 6 puntu.**

Fase horretan, Lehia Elkarrizketarako Mahaiak egoki iritzitako argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie hautagaiei, (i) idatziz edo (ii) hautagaia bilerara deituz. Eskaria idatziz eginez gero, hautagaiari zer argitu edo zehaztu behar duen emango diote aditzera, eta argibideak emateko bost (5) egun naturaleko epea izango du, jakinarazpena jasotako egunetik kontatzen hasita. Bilera deituz gero, hautagaiak bilera horretan eman beharko ditu argibideak, eta bilera gutxienez bost egunen buruan egingo da.

Hautagaiak, lehia-elkarrizketako prozeduran (2. faseko 2. azpifasean) parte hartu ahal izateko, atal hauen balorazioan puntuazio hau lortu beharko dute, gutxienez:

- Proposatutako konponbide teknikoaren memoria, justifikazio-kalkuluen zenbatespena barne. Sistemako ekipamendu eta instalazio nagusien ezaugarri teknikoak. Gutxienez 25 puntu.
- Negozio-plana eta proposamen ekonomiko-finantzarioa. Gutxienez 25 puntu.
- Energia termikoaren %75, gutxienez, energia-eraginkortasun handiko sistemen eta/edo energia berriztagarrien bidez sortzeko baldintza betetzeko proposatutako konponbidearen aurrerapena. Gutxienez 4 puntu.

Puntuazio handiena duten hiru hautagaiei lehia-elkarrizketarako prozeduran (2. faseko 2. azpifasean) parte hartzea eskatuko diete, betiere aipatu gutxienerako puntuazioa lortu badute.

Lehia-elkarrizketarako prozeduran (2. faseko 2. azpifasean) parte hartzea eskatutako hautagaien hautaketarekin txosten juridikoa egingo da.



Prozesu horren emaitzaren berri hautatutakoei ez ezik ez hautatutakoei ere emango diete. Hautatutakoei aipatu eskaria bidaliko diete, haiek lehenetsitako moduan eta, halaber, posta elektronikoz.

### **13. Lehia-elkarrizketa. 2. faseko 2. azpifasea.**

Lehia-elkarrizketa azkenean parte hartzera gonbidatutako enpresa eskatzaileekin egingo da, finantza-irtenbide eta irtenbide tekniko eta juridiko osoaren proposamenaren aurrerapena aurkeztu dutenekin.

Lehia-elkarrizketarako oinarriak izango dira, batetik, konponbidearen proposamen-aurrerapena; bestetik, egin beharreko inbertsioen proposamenaren aurrerapena; eta azkenik, energia termikoaren %75, gutxienez, energia eraginkortasun handiko sistemen eta/edo energia berriztagarrien bidez sortzeko baldintza betetzeko proposatutako konponbidearen aurrerapena (horiek guztiak 12.1 atalean daude azalduta).

Lehia-elkarrizketak gehienez sei hilabete iraungo du, hasitako egunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitzen bada eta Kontratazio Organoak ez badu berariaz adosten eta erabakitzen epea luzatzea edo irizten badio partaideen proposamen eta konponbideek ez dituztela betetzen SUSTAPENAREN interesak eta arrazoiak ematen baditu, lehia-elkarrizketa amaitutzat joko du eta prozedura bete gabe geratuko da.

### **14. Elkarrizketaren amaiera adieraztea eta eskaintzak aurkeztea**

Lehia Elkarrizketarako Mahaiak elkarrizketa amaitutzat joko du, eta hautagaiei horren berri emango die.

Elkarrizketa amaitutzat jotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita 26 egun naturaleko gehieneko epean, hautagai horiei aurkeztutako eta elkarrizketan zehaztutako konponbidea edo konponbideak, egon dauden beharrezanean erantzuten dienak edo dietenak, jasotzen dituen dokumentua igorriko zaie. Dokumentu horretan, era berean, aplikatuko diren balorazio-irizpideak behin betiko zehaztu eta kontratuaren alderdiak finkatuko dira (epea, prezioa, ordaintzeko modua, zigorrak, kontratatu beharreko aseguruak, egiteko baldintzak, funtsezko kontratu-betebeharrak, egin daitezkeen aldaketak, etab.). Horrekin batera, hautagaiei behin betiko eskaintzak aurkezteko eskatuko zaie.

Irtenbidea edo Irtenbideak jasotzen dituen Dokumentua berrikusiko da eta horren inguruko txosten juridikoa egingo da hautagaiei bidali aurretik.

Konponbidea edo konponbideak jasotzen dituen dokumentuan, AIU “LM.06 – TXOMIN ENEA” inguruko hirigintza-garapen berrian etxebizitza berriak eraikitzeke egutegia eta zentral termikoa garatu eta ezartzeko zehaztutako teknikoak bilduko dira, proposatutako konponbide teknikoarekin edo teknikoekin bat etorritz.





Hautagaiek gutun-azal itxia aurkeztu beharko dute gonbidapena jasotzen duten egunetik 26 egun naturaleko epean, aurreko ataletan adierazitako moduan. Gutun-azal horretan, enpresaren izena, eta proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta izaera jaso beharko dira, ondo irakurtzeko moduan.

Gutun-azalaren aurrealdean, inskripzio hau agertu behar da: *“2. fasearen 2. azpifasea. Behin betiko eskaintza Donostiako “LM.06-TXOMIN ENEA” inguruan District Heating sistema ezarri, abian jarri, ustiatu eta mantentzeko jardun orokor eta osoa egiteko kontratista bat hautatzeko prozeduran”*.

Aparteko orrian zehaztu beharko da gutun-azalaren edukia, eta, hain zuzen ere, eduki hori jasoko da konponbidearen edo konponbideen dokumentuan.

## **15. Lehia-elkarrizketaren esparruan proposamenak erabiltzea eta konfidentzialtasun betebeharra**

Edonola ere, 2. faseko 1. azpifasean enpresak emandako konponbideen proposamenak edo elkarrizketa fasetik ateratzen direnak zati batean edo osorik erabili ahal izango dira SUSTAPENaren beharrizan eta interesetara hobekien egokitzen den edo diren konponbidea edo konponbideak zehazteko; dena den, hori edo horiek Kontratazio Organoak onartu beharko du edo ditu.

Xede horretarako, proposamen horiek aurkezteak betebeharrak hauek ekarriko dizkie enpresei: (i) enpresak bermatu egiten du horien gaineko behar den besteko eskubideen titularra dela, eta, beraz, plegu honetako kontratazioaren esparruan erabil ditzakeela; eta (ii) enpresak SUSTAPENari ematen dizkio proposamenak bildutako osagaiak osorik edo modu partzalean erabiltzearen gaineko jabetza intelektuala eta/edo industrial ustiatzeko eskubideak.

Modu horretan, enpresek, prozeduran parte hartuta bakarrik, onartu egiten dute konponbide finantzario, tekniko eta juridikoaren proposamena modu partzalean edo osorik erabil daitekeela azken proposamena definitzeko.

Edonola ere, enpresa lizitatzailer guztiek eta haien laguntzaileek konfidentzialtasun osoa gorde beharko dute kontratuaren adjudikazio-prozeduran District Heating proiektuari buruz izan duten dokumentazioari eta/edo informazioari dagokionez, SUSTAPENaren edo beste edozein enpresa lizitatzaileraren jabetzapekoa izan arren. Enpresa horiek betebeharra dute dokumentu eta informazio horiek parte-hartze prozeduratik edo kontratua egikaritzetik kanpo ez erabiltzeko.

Konfidentzialtasun eginbehar hori modu mugagabeaz luzatuko da.

## **16. Eskaintzak baloratzea**

Lehia Elkarrizketarako Mahaiak aurkeztutako behin betiko eskaintzak ireki eta baloratuko ditu, ondorengo balorazio-irizpideekin bat etorritik.



- Automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak: haztapenaren %70.

Irizpide horiek soilik ekonomikoak, finantza-arlokoak eta/edo epeen ingurukoak izango dira: horiek lehia-elkarrizketan zehar garatuko dira, eta definizioa Konponbidea edo Konponbideak jasotzen dituen Dokumentuan sartuko da.

- Balio-judizio bidez ebalua daitezkeen irizpideak: haztapenaren %30

Irizpideak Dokumentu Deskribatzailean ezarritako helburu teknikoak lortzeko gaitasunean oinarrituko dira, eta alderdi hauen ingurukoak izango dira (beheranzko ordenaren arabera jarrita):

- Proposamen teknikoa.
- Ingurumen-arloko proposamena.
- Zerbitzuaren kalitatearen proposamena.

Edonola ere, lehia-elkarrizketaren prozeduran garatu eta behin betiko zehaztuko dira.

Lehia Elkarrizketarako Mahaiak Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 EDren 84. artikuluan ezarritako arazoietako batean murgilduta dauden enpresak kanpoan utziko ditu, eta Kontratazio Organoari aurkeztutako proposamenen zerrenda helaraziko dio, goitik behera ordenatuta, elkarrizketan aurkeztu eta zehaztutako konponbidea edo konponbideak biltzen dituen dokumentuan zehaztutako balorazio-irizpideekin bat etorritz.

Proposamena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen diren txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango dira.

Lehia Elkarrizketarako Mahaiaren proposamenarekin txosten juridikoa egingo da.

Proposamen ekonomiko onena identifikatzeak ez dakar inolako eskubiderik proposatutako lizitatzailaren mesedetan.

## 17. Kontratuaren adjudikazioa

Proposamen ekonomiko onena aurkeztu duen lizitatzailari eskatuko zaio, eskaera egin eta biharamunetik zenbatzen hasita hamar egun balioduneko epean, dokumentazio hau emateko:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

EJZn altan emanda dagoela egiaztatu beharko du, dagokion atalean. Horretarako, Ekonomi Jardueren gaineko Zergari dagokion uneko ekitaldiko alta-agiria edo azken



ordainagiria aurkeztu beharko ditu, eta, hori osatzeko, aipatu zergaren matrikulan baja emanda ez dagoela ziurtatzeko erantzukizunpeko adierazpena.

- Hala denean, kontratua gauzatzeko erabiliko dituen giza baliabideak benetan dituela egiaztatzen duten agiriak, zehazten den moduan.
- Agiri honen 10.1 atalean ezarritako behin betiko bermea eratu duela justifikatzeko agiria.

Errekerimendua ezarritako epean behar den moduan betetzen ez bada, lizitatzailerak eskaintzan atzera egin duela ulertuko da, eta, kasu horretan, beste lizitatzailerak bati eskatuko zaio dokumentazio bera.

Kontratazio Organoak, Lehia Elkarrizketarako Mahaiak proposatuta, kontratuaren adjudikazioa aipatu dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliadunen barruan adostuko du, eta, gehienez, ere, proposamenak irekitzen diren egunetik zenbatzen hasita bi hileko epean.

Adjudikazioa Kontratazio Organoak erabakiko du ebazpen arrazoituaren bidez, lizitatzailerak jakinaraziko die eta, aldi berean, SUSTAPENeko kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

## **18. Kontrata burutzea eta formalizatzea**

Kontrata burutzeko, formalizatu egingo da.

Formalizatu aurretik, kontrata osorik osatuko da, adjudikaziodunaren eskaintzatik ateratzen denarekin. Kontratu horretan, SUSTAPENak denborari dagozkion zehaztapenak egingo ditu eta adjudikaziodunaren eskaintza osatzeko beharrezko dokumentazio zehatza eskatuko du, kontrata gauzatzeko prest uzteko.

Era berean, kontrata formalizatu aurretik, adjudikatzaileak hauek aurkeztu beharko ditu:

- Aldizkari eta egunkarietan argitaratutako lizitazio-iragarkien gastuak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
- Konponbidea edo konponbideak biltzen duen edo dituen dokumentuan ezarritako baldintzak betetzen dituen aseguru-polizaren kopia.
- Hala denean, aldi baterako enpresa elkarte gisa legez eratu izana egiaztatzen duen agiria. Halaber, elkarteak ordezkari edo ahalorde bakarra izendatu behar du, kontrata azkendu arte kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak erabiltzeko eta eginbeharrak betetzeko ahal nahikoak dituen.

Kontrata formalizatzeko, lizitatzailerak adjudikazio-jakinarazpena igortzen zaienetik 15 egun baliaduneko epea igaro ondoren, SUSTAPENak adjudikaziodunari errekerimendua igorriko dio, formalizazio hori gauzatu dadin. Dokumentu pribatuan egin behar da, errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita 5 egun naturaleko epean.



Hala ere, adjudikaziodunak kontratua eskritura publikoan jasotzea eskatu ahal izango du, eta sortzen diren gastuak bere kargura izango dira.

Kontratuaren formalizazioa Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta SUSTAPENeko kontratatzailearen profileen argitaratuko da. Gehienez ere, formalizazioa egiten den datatik 48 egun naturaleko epean egin behar da.

Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako kontratuaren formalizazio-iragarkien gastuak kontratistaren kargura izango dira.

Kontratistari egozteko moduko arrazoiengatik kontratua ezarritako epearen barruan formalizatzen ez bada, SUSTAPENak eraturako behin betiko bermea konfiskatu ahal izango du.

Kasu horretan, SUSTAPENak beste lizitatzailerari dokumentu honen 17. atalean eskatutako dokumentazioa eskatu ahal izango dio, eta 10 egun naturaleko epea emango dio dokumentazioa aurkezteko.

## **19. Kontratuaren arduraduna**

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izendatu ahal izango du, eta horri egokituko zaio obrak gainbegiratzea, erabakiak hartzea, eta beharrezko jarraibideak ematea, itundutako prestazioak behar den moduan egiten direla bermatzeko, berari egokitzen zaizkion ahalmenen esparruan.

Kontratuaren arduraduna, kasu bakoitzean, pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, SUSTAPENari lotutakoa edo kanpoko.

Kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak nahitaez bete behar ditu kontratistak.

## **20. Izaera pertsonaleko datuak babestea**

Adjudikatzaileak DBLOn eta hori garatzen duen araudian ezarritako betebeharrak bete beharko ditu, kontratua indarrean dagoen bitartean, jardueren barruan eta bere kabuz eta berak erabakita egiten duen izaera pertsonaleko datuen edozein tratamendutan, tratamendu horren arduraduna den aldetik.

Aurrekoa gorabehera, esan behar da kontratua gauzatzean eska daitekeela, kontratuaren objektuan bildutako prestazioen edukari erreparatuz: (i) SUSTAPENaren izaera pertsonaleko datuak tratatzea adjudikaziodunaren partetik; eta (ii) adjudikazioduna SUSTAPENaren titulartasuneko fitxategietan bildutako izaera pertsonaleko datuetan sartzea.



Kontratuaren objektu diren prestazioak lehia-elkarrizketaren prozeduraren emaitza oinarri hartuta zehaztuko diren arren, atal honetan ezarri den araubidea prozeduraren barruan berrikusi eta behin betiko zehaztuko da.

Edozein kasutan, eta berrikuspen horretatik ateratzen denari kalterik egin gabe, adjudikaziodunak hauetan ezarritakoa bete beharko du: DBLO (batez ere, 9, 10 eta 12. artikulua), DBLO garatzeko Araudia onesten duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua (aurrerantzean, DBLOA), eta arau horiek garatzeko gainerako xedapenak.

Modu horretan, eta DBLOk horrela xedatzen duenez, adjudikaziodunak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, datuetan sarbidea izateko kontratua sinatuko du SUSTAPENarekin, DBLOren 12. artikuluan eta DBLOren 20. artikuluan ezarritako edukiarekin eta irismenarekin.

Datuetan sartzeko kontratu hori sinatu behar da lizitazio honetatik ateratzen den kontratua sinatzen den une berean, SUSTAPENaren eta adjudikaziodunaren artean.

Edonola ere, eta datuetan sartzeko aipatu kontratuan ezarritakoa gorabehera, lizitazio honen objektu den kontratazioa dela eta, adjudikaziodunak aurreikuspen hauek beteko ditu:

- DBLOn, DBLOAn eta kontratua adjudikatzean indarrean dauden edo kontratuak irauten duen bitartean indarrean egon daitezkeen gainerako garapen-arauetan ezarritakoa.
- DBLOren 5. eta 6. artikuluetan interesdunari informazioa emateko eta interesdunaren adostasuna izateko ezarri diren betebeharrak. Xede horretarako, eta eginkizun batzuk aipatzearen, adjudikaziodunak, gutxienez, jardun hauek egingo ditu:
  - a) Interesdunekiko harremanean erabili beharreko inprimaki eta agirietan informazio-klausulak eta adostasuna biltzeko klausulak erabiliko ditu.
  - b) Interesdunarekin harremana posta elektronikoaren bidez egiten denean, interesdunari bidalitako mezu bakoitzaren oinean ohar informatiboak gehituko ditu.
  - c) Interesdunekin harremana telefono bidez egiten denean, aurretik grabatutako lokuzio bat edo antzeko baliabideren bat erabiliko du, interesdunari jakinarazteko, haiekin harremanak izan aurretik, berariaz, zehatz eta zalantzarik gabe, (i) elkarrizketa grabatu egin daitekeela<sup>1</sup>; eta (ii) DBLOren 5. artikuluan ezarritako gainerako alderdiak.

Edonola ere, aipatutako jardun horietako bat egitean, adjudikaziodunak tratamenduaren ardura duela adieraziko du, eta SUSTAPENaren kontura jarduten duela; azken hori izango da tratamenduaren arduraduna.

<sup>1</sup> Interesdunen balizko erreklamazioen aurrean datuen babesaren arloko betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, gomendatzen da telefono bidezko elkarrizketa (aipatutako lokuzioa barne) grabatzea. Lokuzioaren hasieran inguruabar horren berri eman behar da.



- Adjudikaziodunaren langile bakoitzak bere eginkizunak gauzatzeko behar dituen datu eta/edo baliabideetara soilik izango du sarbidea.
- Sarbidea urrutitik egiten denean, telekomunikazioen sareen bidez, tokiko sarbideen segurtasun mailari dagozkion neurriak hartuko dira.
- SUSTAPENaren titulartasunekoak diren fitxategietako benetako datuekin ezin dira frogak egin.
- SUSTAPENak hala eskatzen duenean, SUSTAPENaren kontura tratatutako datuen eta SUSTAPENak emandako dokumentazioaren konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko hartutako neurrien memoria deskriptiboa gehituko du.
- SUSTAPENari segurtasun-neurri horiek abian jartzearen eta ikuskatzearen ardurazuzena duen pertsona edo pertsonak nortzuk diren jakinaraziko dio.
- Langileei datuen babesaren arloan indarrean dagoen arauditik sortutako betebeharren berri eman eta trebakuntza eskainiko die.
- Adjudikaziodunak eta kontratua gauzatzeko parte hartzen duten langileek betebeharra dute kontratua indarrean dagoen bitartean eskuratu edo ezagutzen dituzten datu, dokumentu eta gaien inguruko isiltasun profesionala gordetzeko eta horiek guztiak zaintzeko.

## 21. Konfidentzialtasuna

Plegu honetan zehar espezifikoki ezarritako beste edozein konfidentzialtasun-betebeharren kalterik gabe, esleipendunak kontratuaren egikaritzea dela eta atzipena izan duen informazio guztiaren konfidentzialtasun-izaera errespetatu beharko du.

Konfidentzialtasun-betebehar hori denbora-mugarik gabe bete beharko du.

## 22. Teknologia-transferentzia. Jabetza intelektualeko edota industrialeko eskubideak

### 22.1. District Heating Proiektua egikaritzearen emaitzak

Kontratazio honi aplikagarri izango zaizkio District Heating sistemaren edota bere elementuen gain egokitutako Jabetza Intelektualeko edota Industrialeko eskubideei buruzko aurreikuspen hauek:

- Ustiatze-eskubideen titulartasuna eta, oro har, District Heating Proiektuaren esleipendunak sortutako emaitzaren gain egokitutako Jabetza Intelektualeko ondare-edukia duten eskubide guztiena, eta, baita, hala badagokio, Proiektu horren egikaritzatik sortutako Jabetza Industrialaren ustiatze-eskubideena ere,



esleipendunari dagokio munduko lurralde-eremu guztirako eta legez ezarritako gehienezko eperako. Hark eskubide horiek askatasunez xedatu ahal izango ditu.

Beti ere, ordea, esleipendunak SUSTAPENARI behar adina erabilera- eta ustiatze-eskubide (i) emango dizkio, izaera ez eskusiboarekin, munduko lurralde-eremu guztirako (ii) eta legez ezarritako gehienezko eperako (iii) elementu guztien eta bakoitzaren gain, SUSTAPENARI horiek erabiltzea eta ustiatzea ahalbidetuz, bai kontratazio hau kokatuko litzatekeen hirigintza-garapenean bai etorkizunean erakunde horrek, bere kabuz edo hirugarrenen bitartez/lankidetzaz, edozein lurralde-eremutan, gauzatu ditzakeen beste edozein proiektutan.

Horrela, beraz, SUSTAPENA esleipendunak kontratua egikaritzera garatu ditzakeen eta Jabetza Intelektualaren edota Industrialaren bitartez babestu daitezkeen elementu bakoitza eta guztiak erabiltzeko eta ustiatzeko gaituta geratuko da. Ondorio horietarako, SUSTAPENAK, bere kabuz edo hirugarrenen bitartez/lankidetzaz, erakunde horrek parte hartu dezakeen beroa ekoizteko eta banatzeko edozein proiektutan elementu horiek erabili, erreproduzitu, banatu eta eraldatu ahal izango ditu eta beste edozein ustiatze-modu gauzatu ahal izango du; eta espresuki gaituta geratuko da, halaber, SUSTAPENAK District Heating Proiektuaren ezarpenarekin eta zabalkundearekin lotuta parte har dezakeen programa edo hitzarmen nazionalen edo nazioartekoaren baitan edozein hirugarrenei haren berri emateko eta hura erakusteko.

- Edonola ere, District Heating Proiektuaren emaitzek kontratua egikaritu aurreko izaerarekin titulartasuna edota ustiatzeko gaitasunak jada esleipendunari edo hirugarrenei dagozkien elementuak barnebiltzen baditu, edota, kontratua egikaritzeak esleipendunaren edo hirugarrenen titulartasuneko Jabetza Intelektualeko edo Industrialeko aurretik existitzen den edozein eskubideren erabilera/ustiaketa dakarrenean, esleipendunari dagokio, arestian adierazitako baldintzetan, SUSTAPENARI horien erabilera eta ustiaketa baketsua bermatzea, elementu horien gaineko lizentziak eta eskubideak SUSTAPENAREN alde legitimoki emanez edo lortuz.

## 22.2. Plataforma informatikoa

Izaera partikularrekin eta kontuan hartuta Plegu hauetan ezarritakoarekin bat, esleipendunari behatzea dagozkion betebeharren artean, azken bezeroen kudeaketarako plataforma informatiko bat ezartzea eta SUSTAPENAREN erabilgarri jartzea dagoela, horrekin lotuta, jarraian adierazten diren aurreikuspenak ezartzen dira:

Ustiatze-eskubideen titulartasuna eta, oro har, kontratazio honen helburuen zati diren plataforma informatikoaren diseinu- eta garapen-lanen emaitzaren gain egokitutako Jabetza Intelektualeko ondare-edukia duten eskubide guztiena, esleipendunari dagokio munduko lurralde-eremu guztirako eta legez ezarritako gehienezko eperako. Hark eskubide horiek askatasunez xedatu ahal izango ditu



Beti ere, ordea, esleipendunak SUSTAPENARI, dagokion lizentziaren bitartez, behar adina erabilera- eta ustiatze-eskubide (i) emango dizkio, izaera ez eskusiboarekin, munduko lurralde-eremu guztirako (ii) eta legez ezarritako gehieneko eperako (iii) aipatu plataforma informatikoaren diseinu- eta garapen-lan horien, haren diseinu grafikoaren (erabilera- eta diseinu-narratibak eta bere pantailatako bakoitzaren “Look & Feel” barne) eta iturri-kodearen emaitzen gain, SUSTAPENARI azken bezeroen kudeaketan horiek erabiltzea eta ustiatzea ahalbidetuz, bai kontratazio hau kokatuko litzatekeen hirigintza-garapenean bai etorkizunean erakunde horrek gauzatu ditzakeen beste edozein proiektutan.

Gauzak horrela, SUSTAPENAK aipatu plataforma informatikoa eta hura osatzen duten elementuak erabili, erreproduzitu, banatu eta eraldatu ahal izango ditu eta beste edozein ustiatze-modu gauzatu ahal izango du bere kabuz edota hirugarrenen bitartez/lankidetzarekin.

Testuinguru horretan, esleipenduna behartuta egongo da SUSTAPENARI edota hark xede horretarako izendatutako pertsoneri, kontratu honen xede diren lanen egikaritzako edozein unetan eskatzen zaionean, eta edozein kasutan ere, zerbitzuak eskaintzea amaitutakoan, kontratatutako zerbitzuen azterketan, diseinuan, garapenean, ezarpenean edota probetan sortutako datu, kalkulu, dokumentazio tekniko eta erabilera-, prozesu- eta prozedura-gidaliburu guztiak entregatzera; eta, baita, zerbitzu horiek eskaintzeko irekitako iturri-kodea ere.

Esleipendunak SUSTAPENARI plataforma informatikoaren, haren diseinu grafikoaren eta iturri-kodearen erabilera baketsua ziurtatu behar dio Plegu honetatik ondorioztatzen diren baldintzetan; eta, hala badagokio, legitimoki eta baimendutako iturrietatik lizentziak eta horien garapenean erabilitako edota elementu horien zati diren lehendik existitzen duten edozein elementuren gain eskubideak lortzera behartuta egongo da.

### **22.3. Erantzukizuna**

Edozein kasutan ere, esleipenduna izango da kontratutik kanpoko hirugarrenek Jabetza Intelektualaren edota Industrialaren inguruan planteatutako edozein erreklamazioaren erantzulea eta SUSTAPENARI kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontzeptu horiei buruzko erreklamazioetatik erator dakizkiokeen kalte-galera guztiengatik.

### **22.4. Ordainsaria**

22. atal honetan aurreikusitako guztia hartu beharko da kontuan esleipendunak kontratuaren prezio gisa jasoko duen gehieneko ordainsaria zehazteko.

## **23. Kontratuaren aldaketak**

SUSTAPENAK SPKLTBaren 107. artikuluan aurreikusitako supostuetan aldatu ahal izango du kontratua eta, hala badagokio, lehia elkarrizketarako prozeduraren baitan zehazten diren





baldintzatan, soluzioa edo soluzioak barnebiltzen dituen agirian esanbidez aurreikusiak SPKLTBaren 106. artikuluko baldintzekin.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe, lehia elkarrizketarako prozeduraren ondoren zehaztutako kontratuaren indarraldia aldatu daiteke, murriztuz edo zabalduz, gainetorritako eta ez SUSTAPENARI ez esleipendunari egotzi ezin dakizkiekeen inguruabarrak medio, dokumentu deskribatzaile honen 6. atalean ezarritakoarekin bat.

Zehazki, kontratuaren indarraldia zein baldintzatan aldatu ahal izango den eta horren irismena izango dira halaber, lehia elkarrizketarako prozeduraren ondoren behin betiko erabaki beharrekoak.

Edonola ere, kontratuaren gehienezko iraupenari dagokionez (aldaketa barne, zeina, hala badagokio eta aurreko paragrafoaren arabera erabakiko den), hori, gehienez, 20 urtera arte hedatu ahal izango da, dokumentu deskribatzaile honen 2.2 atalean adierazitako District Heating sistemaren eta eraikinaren onarpen-akta eman ondoko egunetik zenbatzen hasita (edo, District Heating sistemaren onarpen-akta eta eraikinaren onarpen-akta data desberdinetan eman badira, azken akta eman ondoko egunetik zenbatzen hasita).

Horretaz gain, SUSTAPENAK kontratua aldatu ahal izango du 2014/23/UE Arteztaruaaren 43. artikuluan aurreikusitako arazoiren bat ematen denean eta zerrendatutako baldintzen arabera.

Aldaketek kontratuaren finantza-erregimenari eragiten badiote, SUSTAPENAK esleipenduna konpentsatu egin beharko du kontratua esleitzerakoan oinarritzat jo ziren supostu ekonomikoen orekari eusteko.

Konpentsazio hori lehia elkarrizketaren baitan erabakitako moduan egin ahal izango da.

## 24. Kontratuaren iraungipena

### 24.1. Kontratua iraungitzeko arazoak

Honako hauek izango dira kontratua iraungitzeko arazoak:

- (i) Kontratuaren indarraldia amaitzea.

Kontratuaren indarraldia amaitu baino bi urte lehenago, SUSTAPENAK kontu-hartzaile tekniko bat izendatuko du partzelaren jabetza, AZPIEGITURAK eta kontratuan zehar egindako obrak eta inbertsioak leheneratzeko betebeharrak behar bezala egikaritzeko, SUSTAPENAK adierazitako baldintzekin bat, dokumentu honetan adierazitakoaren arabera.

- (ii) Donostiako Udalak SUSTAPENARI emakida demanialean egindako lagapena, zentral termikoa hartuko duen eraikina eraikiko den partzelarena eta energia



termikoa banatzeko sarearena, iraungitzea eraketa-tituluan aurreikusitako arrazoiengatik eta baldintzatan.

- (iii) Ekoiztutako energia termikoaren %75a, gutxienez, energia-eraginkortasun handiko sistemen edo energia berriztagarrien bitartez ez ekoiztu izana lehia elkarrizketarako prozeduraren baitan zehaztutako baldintzetan.
- (iv) Errekuntza-gasetan dauden esekidurazko partikulen emisioak  $20 \text{ mg/Nm}^3$  baino handiagoa ez izatearen eskakizuna ez betetzea lehia elkarrizketarako prozeduraren baitan zehaztutako baldintzetan.
- (v) Lehia elkarrizketarako prozeduran zehar zehaztutako kalitatezko parametroak ez betetzea.
- (vi) Kontratua edo AZPIEGITURA SUSTAPENAREN alde aurreko baimen espresurik gabe lagatzea edo zergapetzea.
- (vii) SPKLTBaren 223. artikuluan aurreikusitako kontratua amaitutzat emateko arrazoiak; baita 269. artikuluan eta haiekin bat datozenetan aurreikusitakoak ere, prozedura honen objektu diren negozio juridikoen izaera berezia kontuan hartuta haiek aplikagarri direnean eta SUSTAPENA botere esleitzailerik gisa aritzetik –eta ez administrazio publiko gisa– eratorritako dagozkion egokitzapenekin.
- (viii) Lehia elkarrizketarako prozeduran zehar zehaztu daitezkeen beste edozein arrazoi.

## 24.2. Kontratua iraungitzearen ondorioak

Edozein arrazoi delako bide kontratua iraungitzen bada, esleipendunak SUSTAPENARI partzelaren, AZPIEGITUREN eta kontratuan zehar gauzatutako obren eta inbertsioen jabetza leheneratu beharko dio karga- eta zerga-mota guztietatik aske.

Leheneratzeko unean, partzelak, AZPIEGITURAK eta kontratuan zehar gauzatutako obrek eta inbertsioek egoera onean egon behar dute eta eraikuntzaren antolamenduari buruzko indarrean dagoen legedian aurreikusitako funtzionalitate-, segurtasun- eta bizigarritasun-baldintzak bete beharko dituzte.

Kontratua bere indarraldia amaitu delako iraungitzen denean, esleipendunari ez zaio kalte-galerengatik kalte-ordainik emango.

Kontratua SUSTAPENARI egotzi dakizkiokeen edo ez dakizkiokeen arrazoiengatik amaitutzat ematen denean, SPKLTBaren 225. eta 271. artikuluetan aurreikusitako ondorioak aplikatuko zaizkio, prozedura honen objektu diren negozio juridikoen izaera berezia kontuan hartuta haiek aplikagarri direnean eta SUSTAPENA botere esleitzailerik gisa aritzetik –eta ez administrazio publiko gisa– eratorritako dagozkion egokitzapenekin. Ondorio horietarako, egindako inbertsioen zenbatekoa zehazteko, SUSTAPENAK bere alde egiaztatutako eraikinaren eta inbertsioen entrega-unean dirutan ordaindutako obra zibilaren eta inbertsioen zenbatekoa hartu beharko da kontuan



(zenbateko hori gutxiagotuz). Edozein kasutan ere, inbertsioaren amortizazio-irizpena lineala izango da.

Horrez gain, esleipendunari egotz dakioken arrazoirengatik ebazteko edozein kasutan, inola ere ez da ordainduko aurreko paragrafoan ezarritakoa kontuan hartuta zehaztutako kopuruaren %60 baino gehiago. Kasu horietan, gainera, kautela moduan gordeko da, SUSTAPENAREN aldeko kalte-ordaina zehazten duen ebazpena irmoa izan arte, ordaindu beharreko zenbatekoaren %40a.

### **24.3. Aurreikuspen-funts baten zuzkidura**

Esleipendunak aurreikuspen-funts bat eratu beharko du leheneratzeak eragindako gastuei aurre egiteko. Funts hori ez da erabilgarri egongo eta esleipendunak urtero egin beharreko ekarpenekin eratuko da, lehia elkarrizketarako prozeduraren ondoren behin betiko zehaztutako moduan eta zenbatekoan.

Aurreikuspen-funtsak egin beharreko gastuaren zenbateko bermatu gisa jardungo du eta, hala badagokio, esleipendunak partzelaren, AZPIEGITUREN eta kontratuak dirauen bitartean egindako obren eta inbertsioen –lehia elkarrizketaren prozeduran jakinarazitakoa (2. fasearen 2. azpifasea)– leheneratzea SUSTAPENAK adierazitako baldintzetan egin dezan, dokumentu honetan adierazitakoaren arabera.

Funts hori oso-osorik gastatu beharrik ez balego, geratzen den zenbatekoa esleipendunaren eskuetan geratuko da. Ordaindu beharreko zenbatekoa finkatutakoa baino handiagoa bada, berriz, esleipendunak gainerakoa SUSTAPENARI entregatu behako dio. Esleipendunak SUSTAPENARI eratutako aurreikuspen-funtsa zein zenbatekotan, modutan eta epetan entregatuko dion, lehia elkarrizketarako prozeduraren ondoren erabakiko da.

## **25. Bahitura**

SPKLTBaren 251. artikuluan datozen emakida administratiboen bahiturari buruzko arauak aplikatuko dira, prozedura honen objektu diren negozio juridikoen izaera berezitik eta SUSTAPENA botere esleitzaille gisa ariztetik –eta ez administrazio publiko gisa– eratorritako dagozkion egokitzapenekin.



## 1. Eranskina. District Heating Txomin-en (Donostia) Bideragarritasun Tekniko Ekonomikoko Azterketa.



## 2. Eranskina. Adierazpenen notario-aktaren eredia lizitatzailerak eskatzen zaion kaudimena egiaztatzeko beste erakunde batzuen kaudimenean oinarritu nahi duen kasurako.

[...] jaun/andreak, [...] NAN zenbakia duenak, [...] IFK duen [...] enpresaren legezko ordezkari gisa, adierazten du [...] kontrataziora aurkezten den [...] lizitatzailerak (enpresa lizitatzaileraren izena) lizitazio-baldintzak bere osotasunean ezagutzen dituela, eskatutako kaudimena baduela eta esleipendun gertatzen bada kontratua egikaritzeko beharrezko baldibideak aipatu lizitatzaileraren erabilgarri jartzeko borondate ezeztazina duela. Eta Kode Zibileko 1257.2 artikuluan xedaturikoa espresuki onartzen du; DONOSTIAKO SUSTAPENA S.A. sozietateak espresuki baimendu beharko du haren ordezkapena edo aldaketa.

Idazki hau DONOSTIAKO SUSTAPENA S.A. sozietatearen aurrean aurkezteak konpromiso hori onartzearen ondorioak izango ditu lizitatzailerak esleipendun bihurtzen den kasuan.

[...]-an, [...]-(e)ko [...]-aren [...]-(e)an

[Sinadura]



### 3. Eranskina. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasuna zein bideri ematen zaion izendatzea.

[...] jaun/andreak, bizilekua [...] -an eta [...] NAN zenbakia duenak, bere izenen edo [...] -ren ordezkartzan, bizilekua edo egoitza [...] -an eta [...] NAN zenbakia edo IFK duenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, dokumentu deskribatzailearen jakitun, Donostiako "LM.06-TXOMIN ENEA" eremuan District Heating sistema bat ezartzean, abian jartzean, ustiatzean eta mantentze-lanak egitean datzan jarduera global eta integratzailea gauzatzeko, honen bitartez, lizitazio hau dela eta DONOSTIAKO SUSTAPENA S.A. sozietateak egindako edozein jakinarazpen jasotzeko lehentasunezko bidetzat honako hau izendatzen du:

(\*):

- Posta elektronikoa.**
- Posta ziurtatua.**
- Faxa.**

(\*) zeinuaz adierazi bitarteko hori.

Edonola ere, jakinarazpen-ondorioetarako honako datuak adierazten dira:

Posta elektronikoaren helbidea: .....

Posta-helbidea: .....

Fax-zenbakia: .....

Harremanetarako telefonoak: .....

*[Oharra: Jakinarazpenei arintasun handiagoa emateko asmoz, lehentasunezko bide gisa lizitatzaillearen posta elektronikoa izendatzea gomendatzen da, jakinarazpen-ondorioetarako guztiz baliozkoa izango dena, lizitatzailleak berak adierazitako bidea delako. Alabaina, lehentasunezko bidetzat beste bide bat izendatzea ere onartuko da. Izendapen hori egin ezean, jakinarazpenak posta ziurtatu bidez egingo dira adierazitako helbidean.]*



#### 4. Eranskina. Parte hartzeko eskaera.

[...] jaun/andreak, bizilekua [...] -an eta [...] NAN zenbakia duenak, bere izenen edo [...] -ren ordezkartzan, bizilekua edo egoitza [...] -an eta [...] NAN zenbakia edo IFK duenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, dokumentu deskribatzailearen jakitun, Donostiako “LM.06-TXOMIN ENEA” eremuan District Heating sistema bat ezartzean, abian jartzean, ustiatzean eta mantentze-lanak egitean datzan jarduera global eta integratzailea gauzatzeko,

#### ESKATZEN DU

Donostiako “LM.06-TXOMIN ENEA” eremuan District Heating sistema bat ezartzean, abian jartzean, ustiatzean eta mantentze-lanak egitean datzan jarduera global eta integratzailea gauzatzeko kontratistaren hautaketa-prozesuan parte hartzea.

[...] -an, [...] -(e)ko [...] -aren [...] -(e)an

[Sinadura]